

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko azaroaren 13a

139. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak 2010etik 2016ra bitarte egindako ordezkartza, bilera, bidaia eta kalte-ordainen gastuari nahiz kontratazio publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak 2010etik 2016ra bitarte egindako ordezkaritza, bilera, bidaia eta kalte-ordainen gastuari nahiz kontratazio publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urriaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak 2010etik 2016ra bitarte egindako ordezkaritza, bilera, bidaia eta kalte-ordainen gastuari nahiz kontratazio publikoari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak 2010etik 2016ra bitarte egindako ordezkaritza, bilera, bidaia eta kalte-ordainen gastuari nahiz kontratazio publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Errege Bardea eta Errege Bardeako Komunitatea (5. or.).

II.1. Lurraldearen eta jabetzaren deskribapena (5. or.).

II.2. Errege Bardeako lurraldearen babesa (7. or.).

II.3. Errege Bardeako Komunitatearen araubide juridikoa eta barne antolaketa (9. or.).

III. Lanaren norainokoa (11. or.).

IV. Iritzia (12. or.).

IV.1. "Ordezkaritzako, bileretako, bidaietako eta kalte-ordainetako gastuei" buruzko finantza-auditoriako iritzia. (13. or.).

IV.2. Kontratazio publikoaren arloan legedia betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia (13. or.).

V. Iruzkinak, oharrak eta gomendioak (14. or.).

V.1. Protokolo- eta ordezkaritza-arretengatiko gastuak (14. or.).

V.2. Hautetsientzako kalte-ordainak (17. or.).

V.3. Bileretara eta konferentzietara joatea (20. or.).

V.4. Bidaia instituzionaletako gastuak (22. or.).

V.5. Kontratazio publikoa (32. or.).

Eranskina. Errege Bardeako Komunitatearen aurrekontu-betearaztearen bilakaera eta magnitude nagusiak (2010etik 2016ra) (43. or.).

I. SARRERA

2016ko amaieratik 2017ko hasierara, Kontuen Ganberan, Nafarroako Errege Bardearen Komunitateari buruzko honako eskaera hauek jaso ziren:

- Eledunen Batzarraren 2016ko azaroaren 28ko Erabakia, zeinaren bidez EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eskatuta, Kontuen Ganberari eskatu baitzitzaion txosten bat egin zezan honako partida eta xehetasun hauen exekuzioari eta justifikazioari buruz:

- *“Bileretara eta konferentzietara joatea*

- *Protokolo-arretak*

- *Kargudunen kalte-ordainak eta lokomozioa*

- *Egiptora (2006), Argentinara (2007), Senegalera (2008) eta Costa Ricara (2012) egindako bidaietako gastuak.”*

- Eledunen Batzarraren 2016ko azaroaren 28ko Erabakia, zeinean, Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkartearen ekimenez, Kontuen Ganberari eskatzen baitzaio honako hau egin dezan:

- *“Fiskalizazio txosten urgente bat, 2009tik 2016ra bitarteko kontuei buruzkoa eta kontratazio publikoan legedi indarduna betetzeari buruzkoa.*

- *Protokoloko partidaren azterketa berezi bat, eta gastu horien xehakatzea. Halaber, zehaztea bilera eta konferentzietara joateagatik dieten eta bertaratzeen partidaren erabilera, gastu horiek oinarri dituzten kontzeptuak eta haien justifikazioa emanez.”*

- Valtierra Udalaren Osoko Bilkuraren Erabakia, 2016ko abenduaren 27koa, zeinaren bidez honako hau erabaki baitzen, aho batez:

“Lehen. Kontuen Ganberari eskatzea urgentziaz fiskalizazio txosten bat egin dezala, 2009tik 2016ra bitarteko kontuei buruzkoa eta kontratazio publikoan legedi indarduna betetzeari buruzkoa.

Bigarrena. Kontuen Ganberari eskatzea txosten horretan analisi xehea jaso dadila honako alderdi hauei buruz:

a) Protokoloko partidaren eta gastu horien xehakatzea.

b) Dietetarako partidaren erabilera; zein kontzeptu hartzen dituen, zein diren hartzaileak eta dieta horiek nola justifikatzen diren.

c) Bileretarako eta konferentzietarako bertaratzeen partida, honako hauek adieraziz: onuradunak, gaia, tokia eta iraupena”.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz eta aurreko eskari horiek kontuan hartuta, lan hori, noraino mugatukoa, Errege Bardeako Komunitateari buruzkoa, Kontuen Ganberaren 2017ko ekitaldirako jarduketa programan sartu zen.

Zehatz esanda, honako hau izan da egindako lanaren norainokoa:

- Komunitatearen kontu orokorren aurrekontu-likidazioetan jasotako honako partida edo elementu hauen gaineko auditoria finantzarioa:

- a) Ordezkaritza- edo protokolo-gastuak, bileretara joatea eta kalte-ordainak.

- b) EH Bilduren eskaera parlamentarioan berariaz aipatutako bidaia-gastuak.

- Kontratazio publikoaren arloan legedia betetzeari buruzko fiskalizazioa.

Lanaren denbora-eremuari dagokionez, 2010eko ekitalditik 2016ko ekitaldira bitartekoa izan da, zeren eta 2011ko martxoan Komunitatearen 2009ko ekitaldiko kontu orokorreari buruzko fiskali-

zazio txosten bat argitaratu baitzen. Denbora-eremu hori, aipatutako bidaien berrikuspenari dagokionez, haiek egin zireneko ekitaldietara luzatu da (2006tik 2008ra).

Txostenak bost atal dauzka, sarrera hau barne. Bigarrenean Errege Bardeako lurraldearen eta Errege Bardeako Komunitatearen deskribapen orokor bat aurkezten da; hirugarrenean, berrikusitako elementu eta partiden xehetasun kuantitatiboa erakusten dugu. Laugarrenean, kontu orokorretako aurrekontu-likidazioetatik berrikusitako partidetan ageri den gastuari buruzko finantza- eta arrazoizkotasun-iritzia ematen dugu, eta kontratazio publikoaren arloko legedia betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia. Azkenik, bosgarrenean, ohar eta komentario batzuk aipatzen ditugu, bai eta kudeaketa hobetzeko egokitzeak jotzen ditugun gomendioak ere.

Txostenarekin batera, eranskin bat ageri da, Komunitatearen aurrekontuetako gastuen eta diru-sarreraren eta beste magnitude batzuen 2010etik 2016ra bitarteko bilakaerari buruzkoa, bai eta aipagarriak diren beste informazio ekonomiko-finantzario batzuk ere.

Azterketa lana 2017ko martxotik maiatzera egin dute auditoriako bi teknikarik eta auditore bategosatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzarekin ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak aditzera eman zitzaizkion Errege Bardeako Komunitateko egungo lehendakariari eta 2013ko maiatzera arte kargu horretan egon zenari, kasua bazen egokitzeak jotzen zituzten alegazioak aurkez zitzaizkion, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez da alegaziorik aurkeztu.


Eskerrak ematen dizkiegu Errege Bardeako Komunitateko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

II. ERREGE BARDEA ETA ERREGE BARDEAKO KOMUNITATEA

Ondotik azaltzen ditugu Errege Bardeako lurraldearen eta Errege Bardeako Komunitatearen (aurrerantzean, Komunitatea) antolaketa-ezaugarri eta ezaugarri juridiko nagusiak.

II.1. LURRALDEAREN ETA JABETZAREN DESKRIBAPENA

Errege Bardea 41.845 hektareako hedadura –Foru Komunitatearen lurralde osoaren ehuneko lau– duen lurraldea da, Nafarroaren hego-muturrean kokatua, Aragoirekin muga duena eta inolako udal-dermiori atxiki gabe dagoena. Tradizioz, lurralde hau bazkalekutarako, laboreetarako eta zur-aprobetxamenduetarako erabili izan da, eta, azkenaldi honetan, ekonomia jasangarriko jardueren eta energia berriztagarrien eta turismo-jardueren ustia leku gisa.



Errege Bardea, jatorriz, Nafarroako Koroaren jabetzako ondarea izan zen, gero batean Estatuaren jabetzara pasatakoa. 882tik 1693ra lur horien gozamina honako entitate hauetako bizilagunei aitortzen joan zitzaien:

Errege Bardeako Komunitateko entitate partzuerrak	
Tutera	Corella
Arguedas	Valtierra
Fustiñana	Cabanillas
Cortes	Buñuel
Cadreita	Milagro
Villafranca	Martzilla
Funes	Azkoien
Faltzes	Caparroso
Santakara	Mélida
Zarrakastelu	Erronkari
Zaraitzu	La Oliva monasterioa

Erabiltze hori 1705eko Errege Zedula baten bitartez berretsi zen; horretan errege Felipe V.ak betiko laga zuen Bardearen gozamina eta erabilera herri partzuerrek 12.000 dukat ordaintzearen truke, eta erabiltze hori beste inongo pertsonari eta entitateri ezin emateko betebeharrarekin.

Lurralde hauek jabetza berezia osatzen zuten, "erkidego" bat, zeinean jabetza soila Estatuak baitzeukan, eta ente partzuerrei baitzegokien jabari erabileraduna. Dena den, azken onuradunak herritarrak ziren, herri-lurren aprobetxatzaile gisa; beraz, jabari erabileradunaren azken titulartasuna erakunde gozamen-kideekin partekatzen zuten.

Abenduaren 29ko 3142/1979 Errege Dekretuaren bitartez, Estatuak dohainik laga zion Komunitateari Errege Bardearen gaineko jabetza soila, baina Auzitegi Gorenak lagapen hori deuseztatu egin zuen, forma-akats bat tarteko zela, 1984ko maiatzaren 23ko epaiaren bitartez. Izan ere, ondasun horiek ez zeuden Estatuaren izenean inskribatuta, eta haren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioan ere ez ziren agertzen.

Akats horiek zuzenduta, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 2008ko agindu baten bidez, Estatuak erabaki zuen lurralde hauek Komunitateari dohainik lagatzea. Lagapena, lurralde-ustiapenaren sustapena, hobekuntza eta kontserbazioko prozesuaren barrenean egina, zenbait baldintzari lotuta dago:

- Erregistroko inskripzioan adierazi behar da lurraldea laga dela, modu iraunkorrean, ezarritako xedeetarako, eta eskualdaezina dela.
- Estatuak eskubidea izanen du lurraldea itzul dakion, baldin eta haren erabilera ez bada aurreikusitakoa. Komunitateak dokumentu bidez eta aldizkakotasunez justifikatu beharko du erabilera hori.

2009ko martxoan inskribatu zen lagapen hori Tuterako Jabetza Erregistroan.

Lurraldearen zati bat –2.244 ha, hau da, lurralde osoaren ehuneko bost– 1951z geroztik Defentsa Ministerioari alokatuta dago, indar armatuen entrenamendu-eremu gisa erabiltzeko. Abenduaren 1eko 1943/2000 Errege Dekretuaren bidez, aipaturiko eremua defentsa nazionalerako intereseko zona gisa deklaratu zen. Errentamendu horretatik lortutako diru-sarrerak Komunitatearen finantzaketa-iturri nagusia dira.

Komunitateak Bardeako lurraldearen mugakidea den eta Parke Naturaletik kanpo dagoen finka bat erosi zuen, zeinean, beste zerbitzu batzuen artean, Turismo Informaziorako Gunea eta Ingurumen Hezkuntzarako Gunea baitaude. Gune horrekin turismorako sarbidea erraztu nahi da eta gune bat eduki nahi da ingurumenari buruzko zabalkunde-jardueretarako, bai eta Bardean lan egiten duten ikertzaileentzako egoitza bat edukitzeko ere.

II.2. ERREGE BARDEAKO LURRALDEAREN BABESA

Bardearen aberastasuna, natur ingurunearen, paisaiaren, landarediaren eta faunaren ikuspegitik, eta Bardearen izaera, parekorik gabeko estepa-eremu gisa, erakunde ezberdinek aintzat hartuak dira, hala foru erakundeek nola nazionalak eta nazioartekoek. Hori guztia babestu, hobetu, modu iraungarrian garatu eta jarduera ekonomikoekin bateragarri egiteko –batez ere, tradiziozkoekin–, zenbait arau eta babesbide abiarazi dira. Besteak beste, ondokoak azpimarratu ditugu:

A) Parke Naturala deklaratzeko

Apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeak Nafarroako Errege Bardea parke natural deklaratu zuen, Nafarroako hirugarrena. Hartara, lurralde hori babestu egin zen; izan ere, bere baitan bi natur-erreserba (Rincón del Bu eta Caídas de la Negra), bi hezegune eta hiru hegaztien babesgune berezi handi dauzka (HBB deitutakoak).

Parke naturalaren deklaraziorako eskatzen da gizakien ustiapenen edo bizitokiaren eragin txikia jaso duten eremu naturalak izatea, zeinek ekologia, estetika, hezkuntza eta zientzia arloetan lehentasunez kontserbatu behar diren baloreak biltzen baitituzte, beren paisaien edertasun, ekosistemen garrantzi edo floraren, faunaren edo eraketa geomorfologikoen berezitasuna direla kausa.

Parke naturala Errege Bardea hartzen duen lurralde osoa da, erabilera bereziak dituzten honako gune hauek kenduta: Hondo de Espartosa (272 ha), Bandera (43 ha), Cinco Villas (13 ha) eta Tiro Poligonoa (2244 ha).

Parke Naturalaren deklarazioak hurrengo xedeak dauzka:

- Naturgunearen balio natural bereziak zaindu eta babestea.
- Natur baliabideak modu ordenatuan eta behar bezala erabiltzea, aipatutako baliabideak berzizatuko direla bermatuz.
- Tradiziozko elkarrekin mendi eta basoak kudeatzeari eustea eta kudeaketa hori bultzatzea, gizarte interesari edo publikoari lehentasuna emanez norbanakoen gainetik.
- Natura zientziaren aldetik eta heziketaren aldetik ezagut dadin sustatzea, bai eta hura babesteko beharra ere.
- Parke Naturalaren inguruan diren herri-guneen sustapen sozioekonomikoari laguntzea, Parke Naturalaren kontserbazioarekin batera daitekeen neurrian.
- Turismo- eta hezkuntza-jardueren kontrola eta antolamendua, horiek elementu naturalak eta basa landarediaren eta faunaren espezieak babestu eta iraunaraztearen menpe jarritz.

Lurraldearen kudeaketari dagokionez, 10/1999 Foru Legearen 3. artikulua ondokoa ezartzen du:

“Natur parkea kudeatzea Errege Bardeako Komunitateari dagokio, eta berak izanen ditu indarra duen legediak Natur Parkeetako kudeaketa organoei esleitzen dizkien eskumen eta ahalmen guztiak”.

Parke naturalaren behin betiko deklarazioa baino lehen, Natur Baliabideak Antolatzen Plana (NBAP) onetsi zen, zeina deklaraziorako gakoa baita, bai eta lurralde horren etorkizuneko jarduketarako eta kudeaketarako ere. Dokumentu horretan, funtsean, ingurune fisikoaren eta lurzoruaren erabilaren azterketa bat egiten da, eta jarduketako-ildoak ezartzen dira; halaber, parkearen zonifikazioa planteatzen da, natur ingurunearen elementu bakoitzari eta lurraldean egiten diren erabilerei eta aprobetxamenduei buruzko azterketa-prozesu luze baten emaitzetan oinarrituta. Ondorioen atal bat badauka, zeinean babeserako, higadura ahal den guztian gutxitzeko, usadio tradizionalak errespetatu eta sustatzeko, natur balioak errespetatzen dituzten erabilera berrien aukera aztertzeke eta abarretarako jarduketako-ildoak ezartzen baitira.

B) Biosferaren Mundu Erreserbaren Deklarazioa

Biosferaren erreserbak lehorreko edo kostaldeko ekosistema adierazgarriei dagozkien eremuak dira, zeinek garrantzia baitute garapen jasangarria lagun dezaketen jakintza praktiko eta

zientifikoak eta giza-balioetakoak emateko. Erreserbak Europar Batasuneko kideak diren estatuen proposamenak dira, eta nazioarteko aitortza bat dute UNESCOren “Gizakia eta Biosfera” (MAB) programaren esparruan. Horiek guztiek munduko sare bat osatzen dute.

2000ko azaroan, UNESCOk Nafarroako Errege Bardea Biosferaren Mundu Erreserba deklaratu zuen. Halakotzat jo den Nafarroako paraje bakarra da.

Nazioarteko erakunde horren jarraibideei jarraituz, erreserbak elkarren osagarri eta indargarri diren hiru oinarritzko eginkizun dauzka:

- Baliabideak kontserbatzea: baliabide genetikoak, paisaiak, ekosistemak eta espezieak kontserbatzeko ekintzak indartzera bideratua.
- Garapen-eginkizuna: giza garapena eta garapen ekonomikoa ingurunearen kontserbazioarekin, kulturarekin eta tradizioekin integratzeko dinamikak ezarri nahi ditu.
- Eginkizun logistikoa: laguntza ematen du demostrazioko, ikerketako, prestakuntzako, jarraipeneko, ingurumen heziketako eta informazioa elkarrekin trukatzeko proiektuak egiteko; tokiko mailako, maila erregionaleko, maila nazionaleko eta mundu mailako kontserbaziorako eta garapen jasangarrirako proiektuak dira horiek.

Hau da, erreserbaren figurak kontserbazioaren arloan sartzen ditu lehendik dauden elementu naturalen babesa ez ezik, natur baliabideen ustiatze jasangarriko modu tradizionalen babesa ere, lehentasun maila berarekin. Azken batean, erreserbarekin lotutako populazioak eginkizun aktibo bat eduki behar du, eta ustiatzerako modu jasangarri horiek bilatzen eta garatzen parte hartu behar du, halako moduz non erreserba bera bilakatuko baita kontserbazioko eta toki garapeneko politiken arteko topagunea, eta hartatik ateratzen den esperientzia beste lurralde batzuetara eramán ahalko baita.

Biosferaren erreserba bat sortzeak daukan erronka handiena da honako hauetarako mekanismoak diseinatzea eta, batez ere, mantentzea:

- Garapen ekonomikoa kontserbazioarekin bateragarri egitea eta harmonizatzea.
- Gizarteak, oro har, eta haren biztanleek, bereziki, dauzkaten interesak erreserbaren helburrekin eta eginkizunekin uztartzea.
- Nekazaritza-egiturak eta tradizioak kontserbatzea eta, aldi berean, garai berrien arabeko ekonomia bat garatzea.
- Hartan garatu beharreko jarduera guztiak planifikatu eta koordinatzea, aldi berean haren deklaraziorako aintzat hartu ziren irizpide guztiak betez.

Erreserbetan, tokiko populazioak funtsezko egiteko bat bete behar du erabakiak hartzerakoan, parte hartuz ustiatzerako modu jasangarrien bilaketan eta garapenean. Biosferaren erreserben giza dimentsio horixe da haiek desberdin eta berezi egiten dituenak, zeren eta kudeaketa, funtsean, tokiko populazioaren eta gizarte osoaren arteko itun bat bilakatzen baita.

Azken batean, deklarazio horiek –bai parke naturalarenak, bai biosferaren erreserbarenak– nabarmentzen dute, lehenbizi, Bardeako lurraldearen garrantzi ekologikoa. Babes horrek bateragarria izan behar du lurralde horretan zaindu beharrekoak diren natur balioekin; usadio tradizionalen –nekazaritza, abeltzaintza eta ehiza– ustiatze jasangarriarekin; lurraldea errespetatzen duten erabilera ekonomiko berriak hastearekin; landaredia, flora eta fauna zientifikoki ikertzeko behararekin, eta ingurumenaren arloko hezkuntza sustatzearekin. Printzipio horiek ezinbestez gidatu behar dute Bardeako Komunitatearen kudeaketa.

II.3. ERREGE BARDEAKO KOMUNITATEAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA BARNE ANTO-LAKETA

Kontuen Ganberak 2009ko ekitaldian Errege Bardeako Komunitateari buruz egin zuen txosten batean, atal horiek zabal garatu ziren. Txosten honetan, berriz, orduko txosten haren edukia laburbilduko dugu, honako alderdi hauek azpimarratuta:

Komunitatea toki-entitate bat da, lurralde izaerakoa, populaziorik gabea, zeina Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 45.1 artikulua arabera "Nafarroako tradiziozko batasun edo korporazio" kategorian sailka daitekeen, eta antzekotasuna dauka mankomunitateekin, elkarrezaera baitauka oinarrian; alabaina, haietatik bereizten da bere baitan askotariko toki-entitateak, udalerriak eta tradiziozko beste korporazio batzuk hartzen dituelako, bai eta pertsona juridiko pribatu bat ere.

Komunitatean zuzeneko eragina duen antolamendu juridikoko banakako elementua haren ordenantzak dira; hots, araudi bat, Komunitateak eratzen duena, eta ezartzen duena nola, noiz eta nork baliatuko dituen lurralde horretako aprobetxamenduak edo erabilerak.

Ondarearen kudeaketarena aipatutako ordenantzetan araututa dago; ordenantzen artikuluek, izan ere, arloan aplikatzekoa den araubide juridiko berezia ezartzen dute. Beraz, araudi orokorra ordezkot gisa aplikatu ahal da bakarrik, sor daitezkeen balizko hutsuneak betetzeko eta, betiere, ordenantzen berariazko araubidearen kontra ez badoa.

Langileen kudeaketari, araubide ekonomiko-finantzarioari, kontratazio administratiboari eta kontabilitate- eta aurrekontu-araubideari dagokionez, toki entitateentzat, oro har, ezarrita dagoena aplikatzen zaio. Gai horietan, ordenantzak lotuta daude araudi orokorrak ezarritakora. Ordenantzek zilegi dute araudi orokorra garatzea –bai eta, are, araubide bereziko esparru autonomoak arautzea ere— baina ez araudi hori urratzea.

Azken batean, Komunitatea Nafarroako organigrama juridiko eta administratiboan txertaturik dago tradiziozko batasunaren izaerako toki-entitate gisa, zeinak bere aprobetxamendu eta baliabide ekonomikoak kudeatuko baititu bere ordenantzek xedatzen dutena betez; eta, ordenantzarik ezean, Nafarroako toki-entitateen araudi orokorra aplikatuko zaio.

Ordenantzetan ia aldaketarik ez da egin, salbu eta 2007an egindakoak –NBAPtik heldu diren abeltzaintza- eta nekazaritza-neurriak sartzen dituzte– eta 2010ean egindakoak –nekazaritza- eta abeltzaintza-barrutiak sortzen dira, eta horrek aldaketa sakona dakar Bardean egiten zen erabileraren tradizionalararen sisteman–.

Barne antolamenduari dagokionez, ordenantzen 107. artikulua honako hau ezartzen du: *"Bardearen gobernu eta administrazioa dagozkio gozamen-kide diren herri, ibar eta monasterioaren ordezkarien batzar nagusiari eta batzorde iraunkorrari, zeina lehendakari batez eta sei kidez osatuta baitago."*

- Batzar Nagusia hogeita bi kidek osatzen dute; hots, kide bat, gozamen-kide den ente bakoitzeko (edo bi, baina boto-eskubide bakarrarekin); kideek erabaki-ahalmen bera dute, edozein direla ere biztanleria eta aprobetxamendu-eskubideak: ordezkari bakoitzak boto bat dauka. Komunitateko gobernu- eta administrazio-organo gorenaren da, eta horregatik dagozkio funtsezko ahalmenak; hau da, ordenantzak aldatu eta garatzea, aurrekontu eta kontuak onestea, baliabideak eta aprobetxamendu-kanonak finkatzea eta bere antolamendu berekiak berariaz esleitzen dizkion gainerakoak.

- Batzorde Iraunkorra osatzen dute Batzar Nagusiak bere kideen artean hautaturiko zazpi kide, eta batzordeko lehendakaria kide horiek hautatzen dutena izanen da. Batzordeari dagokio Komunitatearen gobernu arrunteko afera guztiak xedatzea; hau da, Komunitateko gobernu- organo arrunta da.

- Lehendakaritzari dagokionez, ordenantzek haren eskumenei buruzko xedapen urri biltzen dute, eta eginkizun inplizituek landa, nola diren karguarekin berezko lotura duten organo kolegiatuak ordezkatu eta haien lehendakari gisa jardutearenak, soilik esleitzen diote berdinketak bere "kalitate-botoarekin" desegiteko ahalmena eta "presako kasuetan hartzea batzordeari dagozkion mota guztietako erabakiak, ezertan galarazi gabe haiek batzordeari bere lehenbiziko bileran onespenerako aurkeztea".

Kide anitzeko organoen erabakiak beti gehiengo soilez hartzen dira, salbu eta ordenantzak aldatzeari dagokionez, horretarako beharrezkoa baita Batzar Nagusiko kideen bi herenek aldeko botoa ematea.

Langileei buruzko arauak ordenantzen XVI. kapitulan ("Funtzionarioak") jasota daude; zehazki, honako lanpostu hauek aurreikusten dira:

a) Idazkaria: haren eginkizunak dira, funtsean, Komunitatearen gobernu-organoei laguntza ematea, aktak egitea, dokumentazioa ordenatu eta zaintzea eta indarreko antolamenduan aurreikusitako gainerakoak.

b) Kontu-hartzailea: haren eginkizunak toki entitate guztientzat ezarritakoak izanen dira (barne fiskalizazioa, kontabilitatearen kudeaketa...). Lanpostu hori aldi baterako bete zen, tarte batez; beste toki-entitate batzuekin kontu-hartzailea konpartitzeko zenbait urrats egin ziren, baina emaitzarik lortu gabe. Gaur egun, idazkaria da eginkizun horiek betetzen dituen. Idazkari eta kontu-hartzaile gisa jarduten du, eta kontratatutako enpresa baten laguntza dauka kontabilitate- eta aurrekontu-lanetarako; izan ere, enpresa horixe da lan horiek egiten dituen.

III. LANAREN NORAINOKOA

Egindako eskaerei jarraituz, ondoren erakusten dugu fiskalizazioaren xede diren partiden eta kapituluaren aurrekontu-likidazioa, bai eta Errege Bardearen Komunitatearen aitortutako betebeharraren zenbateko osoa ere, 2010-2016 aldiari dagokionez.

Izena	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Protokoloko eta ordezkari-tza-lanetako eginkizunak	35.767	48.964	35.389	32.348	35.206	28.689	25.229
Bilerak eta biltzarrak	22.060	50.172	23.367	1.077	1.184	1.217	2.952
Zerbitzua dela-eta emandako kalte-ordainak: hautetsiak	83.872	110.239	85.145	75.095	72.270	63.496	70.721
Zerbitzua dela-eta emandako kalte-ordainak: langileak	3.269	2.784	1.001	281	651	1.440	251
Zerbitzua dela-eta emandako kalte-ordainak: Laboreetan izan diren kalteengatiko beste kalte-ordain batzuk	1.430	1.357	20.629	6.448	0	0	423
2. kapitulutik berrikustekoak diren partidak, guztira	146.398	213.516	165.531	115.249	109.311	94.842	99.576
6. kapitulua, guztira	1.485.440	1.288.881	1.428.072	1.354.348	1.224.449	1.179.572	1.494.127
Komunitatearen guztizko gastua	9.485.302	9.347.164	9.906.427	9.097.828	11.155.178	8.819.033	9.033.786

Finantza-auditoriarako, berrikuspenaren xede diren 2. kapituluko partiden zenbatekoa, sei urteetan, 944.423 eurokoa da: ekitaldi horietako 2. kapituluaren guztizkoaren ehuneko 14 egiten dute.

Aurrekoez gainera eta parlamentu-eskariari erantzunez, 2006tik 2012ra egindako lau bidaietatik heldutako gastuak aztertu ditugu: 203.643 euroko gastua egiten dute. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago Costa Ricara egindako bidaia 2012koa dela; hori dela eta, gastu hori –34.324 euro– aurreko taula orokorraren 2. kapituluko partidetan sartuta dago.

Kontratazioaren berrikuspena adjudikatutako eta aurrekontuaren ikuspuntutik 6. kapituluaren jasotako kontratuen hauta-lan baten bidez egin dugu. 6. kapituluak, guztira, 9,45 milioiko gastua egiten du aztertutako aldiaren.

IV. IRITZIA

Kontuen Ganberak “protokolo arretetan, bileretan, bidaietan eta kalte-ordainetan egindako gastuen” partidak fiskalizatu ditu, Bardeako Errege Komunitatearen kontu orokorren aurrekontu-likidazioetan sartu direnak. Finantza-auditoriaren norainokoa aipatutako aurrekontu-likidazio horien elementu horietara mugatuta dago.

Aurrez aipatutako elementuen finantza-auditoriarekin konbinatuta, Kontuen Ganberak fiskalizatu du ea Komunitateak garatutako kontratu-jarduera, alderdi adierazgarri guztietan, kontratazio publikoaren arloan aplikatzekoa den araudiaren arabera egin den.

Gure jarduketaren denbora-esparrua bereziki zentratu da Komunitatearen 2010etik 2016ra bitarteko ekitaldietako aurrekontu-likidazioetan. Hala eta guztiz ere, bidaia-gastu instituzionaletarako, 2006tik 2008ra egin direnak ere aztertu dira.

KOMUNITATEAREN ERANTZUKIZUNA

Komunitateko idazkari eta kontu-hartzailea dena da aurrekontu-likidazioen elementu horiek formulatzeko eta aurkezteko ardura duena, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; halaber, haiek, iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialik gabe, lantzeko eta prestatzeko ardura duena da.

Komunitateak, gainera, bermatu behar du kontu orokorretan islatutako kontratazio- eta informazio-jarduerak bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta horretarako behar diren barne kontroleko sistemak ezarri behar ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da finantza-fiskalizazioko iritzi bat ematea 2010etik 2016ra bitarteko aurrekontu-likidazioetan sartutako “ordezkaritza- eta bilera-gastuei eta bidaietako kalte-ordain eta gastuei” buruz, gure auditorian oinarrituta. Auditoria hori, norainoko mugatukoa denez, ez da kontu orokorreki buruzkoa, oro har, adierazitako elementuei buruzkoa baizik. Halaber, iritzi bat eman behar dugu Komunitateak, ekitaldi horietan garatutako kontratu-jardueretan, arlo horretako araudia betetzeari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: segurtasun arrazoizko bat lortzea aurrekontu-likidazioetan berrikusi diren elementuetan akats materialik ez egoteari buruz eta kontratu-jarduera eta kontu orokorretan islatutako informazioa, alderdi garrantzitsu guztietan, aplikatzekoak diren kontratazio publikoko arauen arabera izateari buruz.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko berrikusitako aurrekontu-likidazioetako elementuetan ageri den informazioari buruz eta fiskalizatutako ekitaldietan kontratazio-araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak betetzeari buruz. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera izan behar dira, horren barne dela elementuetan akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrean aipatutako epigrafeak egin ditzan eta kontratazioaren arloko legedia betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria betek, halaber, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren ebaluazio bat jasotzen du.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsatzeko.

IV.1. "ORDEZKARITZAKO, BILERETAKO, BIDALETAKO ETA KALTE-ORDAINETAKO GASTUEI" BURUZKO FINANTZA-AUDITORIAKO IRITZIA.

FINANTZA-AUDITORIAKO IRITZIA

Gure iritziz Bardeako Komunitatearen 2010etik 2016ra bitarteko ekitaldietarako kontu orokorretako aurrekontu-likidazioetan jasotako ordezkarietako, bileretako, bidaietako eta kalte-ordainetako gastuei buruzko partidak prestatu izan dira, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzen den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

AZPIMARRA-LERROKADA

Berrikusitako gastuak Bardeako Komunitatearen eremu diskrezionalaren barruan sartzen direla abiapuntutzat hartuta, Kontuen Ganbera honek, gastu publikoaren arrazoizkotasunaren printzipioa aplikatuta, interesgarritzat jotzen du honako hauek azpimarratzea:

- Komunitateak berrikusitako eta ordaindutako bidaiak instituzionaletako batzuen garapenak ez dio erantzuten baliabide publikoen erabilera arrazionalari, ez eta administrazio publiko guztiei eskatzekoa zaien kudeaketa onaren printzipioari ere, bereziki bisitatutako tokietara joateko motibazioari, bidaiak egin zituzten pertsonen kopuruari eta bilatutako helburu edo xedeei dagokienez.
- Protokolo- eta ordezkarietza-arreten arloko gastu batzuetan, ez da beti jasota gelditzen haiek egiteak nolako onura edo erabilgarritasuna duen Komunitaterako, zenbatekoak normalak edo arruntak diren edo haien onuradunak nortzuk izan ziren.

BESTE GAI GARRANTZITSU BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

Honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Ikusten da azken ekitaldietan, bereziki 2013tik aurrera, Komunitateak berrikusitako partiden guztizkoan gastatutako zenbatekoa nabarmen jaitsi dela —ehuneko 30 inguru—.
- 2017ko aurrekontuaren betetze-oinarriek berriazko araudi berri bat sartzen dute prozedurei eta zenbatekoen gehieneko mugei buruz, hautetsien ordezkarietza- eta bilera-gastuei eta kalte-ordainen araubideari dagokienez, bai eta Komunitateko lehendakariarentzako aukerako ordainsari-araubideari dagokionez ere. Esparru berri horrek normalizatu eta argitzen ditu aipatutako hautetsiei bideratutako konpentsazioak.

IV.2. KONTRATAZIO PUBLIKOAREN ARLOAN LEGEDIA BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIO-IRITZIA

BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENekin

Ikusi dugu salbuespen puntual batzuk gertatu direla kontratazioaren arloan, eta halakoak honako hauekin lotuta daudela, funtsean: kontratu-aldaketen izapidetze eta erabilera desegokiak, baxuegiak diren eskaintzak baztertzea (horretarako justifikazio tekniko nahikoa eman gabe), eta lizitatzailaren hartzekodunen konkurtso batean egiteko dagoen obraren lagapena oker egitea.

LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Gure ustez, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" izenburuko lerrokadan azaldu diren ez-betetzeengatik ez bada, Bardeako Komunitateak 2010etik 2016ra bitarteko ekitaldietan garatutako kontratazio-jarduerak egin dira eta aurrekontu-likidazioetan jaso dira, alderdi esanguratsu guztietan, kontratazio publikoaren eta aurrekontuen kudeaketan aplikatzekoa den araudiaren arabera.

AZPIMARRA-LERROKADA

Legedia betetzeari buruz daukagun iritzian eraginik ez badu ere, nabarmentzen dugu Bardeako Komunitatearen inbertsio-jarduera, aztertutako ekitaldietakoa, lotuta dagoela neurri handi batean, Bardeako lurraldea parke natural eta biosferaren erreserba deklaratu izanak, hainbat esparrutan, berekin dakarrenarekin.


V. IRUZKINAK, OHARRAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren jaso ditugu berrikusitako arloei buruzko ohar eta iruzkin batzuk, eta, haiekin batera, Ganbera honen iritziz txostenaren hartzaileentzat eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeen hainbat informazio gehigarri. Halaber, Komunitatearen kudeaketa hobetzeko beharrezkoak jotzen ditugun gomendioak jaso ditugu.

Halaber, atal honek azalpen batzuk jasotzen ditu legedia betetzearen gaineko iritzia dela-eta adierazi diren salbuespenei buruz.

V.1. PROTOKOLO- ETA ORDEZKARITZA-ARRETENGATIKO GASTUAK

2010etik 2016ra Komunitateak, protokolo- eta ordezkaritza-arreten kontzeptuan 241.592 euro gastatu ditu guztira. Gastu horren urteko bilakaera grafikoki jaso dugu ondoren:



Ikus daitezkeen bezala, 2011n iristen da zenbatekorik handienara, 48.964 euroekin; 2016an, berriz, 25.229 euro dira, hau da, 2011koa baino ehuneko 48 txikiagoa.

Kontzeptu horri egotzitako gastuaren izaerari erreparatuta, ikusten dugu haren ehuneko 80 inguru jatetxe-gastuei, gabon-sariei eta elikadura-gastuei dagokiela.

Aurreko guztizko gastuaren ehuneko 86 berrikusi da; berrikuspen hori honako hauek izan ditu ardatz, funtsean: lege-euskarria, aurrekontu-egozpena, dokumentu bidezko justifikazioa, hornitzaile nagusiak, onuradunen identifikazioa eta zenbatekoaren arrazoizkotasuna.

Aurrekontu betearaztearen oinarriek labur arautzen dute gastuak onesteko, justifikatzeko, fiskalizatzeko eta kontabilizatzeko prozedura. 2010etik 2016ra ez dago barne araurik gastu horien izaera eta zenbatekoa berariaz arautzen duenik, motibazioari eta jatorduetarako, hoteletarako, garraibideetarako eta abarretarako erreferentziako zenbatekoei dagokienez. Bestetik, ez da prozedura bakar bat jasotzen gastu horiek ituntzeko.

Oro har, gastu guztiak behar bezala onetsi dira eta dokumentu bidez justifikatu dira, eta zuzen egotzi zaizkio aurrekontuari. Alabaina, ez daude beti motibatuta, eta haien onuradun edo hartzaileak ez dira beti identifikatzen, bereziki jatetxeetako gastuen kasuan.

Oro har, honako hauek izan dira gastu horien onuradunak:

- Komunitateko organoetako kideak.
- Beste entitate batzuetako pertsonak, ordezkaritza-arreten kasuan.
- Komunitateko langileak eta beste entitate batzuetako langile teknikariak.

- Herri partzuerretako ordezkariak eta bizilagunak.

2010etik 2016ra, **“mantenu-gastuetan”** era askotakoak aurki daitezke; esate baterako, gobernu organoen jatorduetan –organo horietako kideen artekoetan edo Komunitateaz kanpoko langileekin egindakoetan–, 2010etik 2014ra, batez besteko gastua 60 eurokoa izan da jatordu eta pertsona bakoitzeko; urte horretatik aurrera, berriz, gastu horiek pixkanaka eta nabarmenki gutxitzen joan dira; izan ere, 2016an, batez besteko gastu hori 25 eurokoa da.

“Kreditu txartelen” bidez egindako gastuak 28.053 eurokoak izan dira; ekitaldiz ekitaldi, ikusten da gero eta gutxiago direla ordainketa sistema horren bidezko gastuak; izan ere, 2010ean 8.044 euro izan ziren eta 2016an, berriz, 650 euro. Gastu horiek aurrekontuaren hainbat partidari egozten zaizkio, gastuaren izaera zein den. Hiru kontzeptu dira txartel bidez egindako gastuaren ehuneko 82 azaltzen dutenak: jatetxe gastuak –ehuneko 51–, treneko txartelak –ehuneko 18– eta bidesariak –ehuneko 13–; gastuen ehuneko 52 Nafarroatik kanpo egindakoak dira.

Berariaz aztertu dira Komunitateko lehendakariaren kreditu-txartelarekin egindako jatetxe-gastuak. Aztertutako aldian 135 mugimendu egin dira; haietatik, 88 apunte berrikusi dira –ehuneko 65–; honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- 28 apuntetan, gastuaren justifikazio gisa, soilik txartelaren banku-mugimendua ageri da.
- Gainerako apunteetatik, honako taula honetan ageri dena da jankide bakoitzeko gehieneko eta gutxieneko zenbatekoa:

Ekitaldia	Gutxieneko zenbatekoa	Gehieneko zenbatekoa
2010	14,58	99,35
2011	36,96	57,24
2012	16,73	79,17
2013	15,82	50,36
2014	5,85	41,12
2015	24,08	24,08
2016	Gasturik gabe	Gasturik gabe

“Gabon-sarietan” 2010etik 2016rako aldian, Komunitateak guztira 50.218 euro gastatu ditu. Ekitaldiari erreparatuta, oraingoan ere ikusten da gastu horretan beheranzko joera bat egon dela: 2010. eta 2011. ekitaldietan, kontzeptu horrengatik urteko gastuak urtean 12.000 eurotik gorakoak izan ziren; 2016an, aldiz, 2.600 euroraino jaitsi dira. Onuradunen kopuruari dagokionez, 2010ean 29 izan ziren; 2016an, aldiz, bederatzi. Gabon-sari bakoitzaren kostua 110 eta 582 euro artekoa izan zen 2010ean; 2016an, aldiz, 95 eta 344 euro artekoa izan da.

“Bardeako Eguna” urtero ospatzen da udal entitate partzuerretako batean. Herri-bazkari bat egiten da, bai eta zenbait jarduera eta ekitaldi ere (bigantxak, puzgarriak, ekitaldiak, karpa, garbiketa eta abar). Entitate antolatzaileak ordaintzen ditu haiek guztiak, eta gero Komunitateari helarazten dizkio, finantzatu edo ordain ditzan. Komunitateak dagokion aurrekontu-partidan erregistratzen ditu. Urtero 900 pertsona inguru bertaratzen dira: gutxi batzuek bazkariko txartelak ordaintzen dituzte; gainerakoek, berriz, Komunitateak ordaintzen ditu. 2010etik 2016ra jarduera horrek 263.169 euroko gastu garbia eragin dio Komunitateari; honako hau da horren xehakatzeara:

Bardeako Eguna	2010-2016
Jatetxe-gastuak	170.556
Entitate antolatzaileak ordaindu beharreko gastuak	122.155
- Bazkarirako txartelen bidezko ekarpena	(29.542)
Komunitatearen gastu garbia	263.169

Jarduera honek Komunitateari eragin dion urteko gastu garbia 53.689 eurokoa izan zen 2010ean; 2016an, aldiz, 29.205 eurokoa —ehuneko 46ko jaitsiera—. Bertaratu den pertsona bakoitzeko gastu garbia 72 eta 34 euro artekoa izan da.

Geroztik izan den egitate garrantzitsu gisa, aipatu beharra daukagu ezen, 2017ko aurrekontuaren betearazte-oinarrietan berariaz arautzen dela gai hori; izan ere, besteak beste, honako muga eta prozedura hauek jaso dira.

- Treneko edo hegazkineko txartelak Komunitateak berak erosi eta ordainduko ditu, zuzenean.
- Hotelen erreserba Komunitateak berak egingen du, eta gauak hiru izarreko hoteletan edo parkoetan egingen dira.
- Kilometro bakoitzeko 0,30 euro ordainduko dira; 0,60 euro ordainduko dira, berriz, Bardeako lurraldearen barruan egindako kilometroak.
- Komunitateko gobernu-organoetako kideen jatordu gastuak gehienez ere 20 eurokoak izanen dira jatordu bakoitzeko.


Azken batez, protokolo-arretetarako gastuetan gertatu den beheranzko joerak eta erabaki den araudi berriak normalizatu eta egokitu egin ditu halako gastuak, eta arrazoizkotasunaren printzipioetara eta administrazio publiko guztiei eskatzekoak zaizkion kudeaketa egokiko printzipioetara ekarri ditu.

Hala ere, hau da gure gomendioa:

- *Gastu horien arrazoia edo justifikazioa izanen da haiek egiteak Komunitateari onura edo erabilgarritasuna dakarkiola eta haien zenbatekoak normalizat edo arruntzat jo daitezkeela.*
- *Gastuen egiaztagiri ororekin, kasua bada, prestazioaren onuradunak azaldu beharko dira.*

V.2. HAUTETSIENTZAKO KALTE-ORDAINAK

Hautetsientzako kate-ordainek 560.838 gastua ekarri dute guztira 2010etik 2016ra. Grafikoki, gastu horren urteko bilakaera ondoren azaltzen duguna izan da:



Balio handiena 2011n izan zen, 110.239 eurekin; gero, gutxitzen joan da pixkanaka, eta 2016an 70.721 eurokoa da; hau da, 2011koa baino ehuneko 36 txikiagoa.

Hautetsientzako kalte-ordainen aurrekontu-kontzeptuaren barruan, Komunitateak ordaintzen dituen bertaratze-dietak eta kilometrajetik heldu den gastuak daude. Aurreko guztizko gastutik – 560.838 euro–, ehuneko 95 dietei dagokie berez eta gainerako ehuneko bosta, berriz, kilometrajeari.

Kontzeptu horien arautzea aurrekontua betearazteko oinarrietan jasota dago. Hartara, aztertutako aldirako, ezarrita dago Batzarreko lehendakariak eta kideek eta batzorde iraunkorrak, bai eta aholkulariek ere, 150 euro jasoko dituztela (140 euro 2012tik aurrera) batzar, batzorde, lan-bilera eta ekitaldietara joateagatik, baldin eta haietara Bardeako Komunitatearen ordezkari joaten badira. Aurreko zenbateko horri beste 100 euro gehituko zaizkio (90 euro 2012tik) bilerak edo ekitaldiak Foru Komunitatetik kanpo direnean eta egonaldia egun betekoa baino luzeagoa bada.

Hau da, Ganbera honek 2009an Komunitateari buruz egindako txostenean ageri zen bezala:

“Komunitatean, hortaz, dieten araubidea organo kolegiatuen bileretara nahiz lan bilera edo ordezkaritza mota orotara hedatu da. Horrekin, eragindako kalteen konpentsazioa eman nahi zaie batzarkideei, bereziki Komunitatearen jardueretan jarritako dedikazio berezitik heldu den lortu gabeko irabaziena.”

Halaber, txosten hartan Komunitateari gomendatu zitzaion gogoeta bat egin zezala lehendakariari dieten bidez ordaintzeko sistemari buruz, haren arduraldia zela eta.

2011ko azarora arte, batzorde iraunkorraren urteko akordioa tarteko, dieta horien gainean ehuneko 60 salbuespen fiskala ezartzen zen; data horretatik aurrera, berriz, salbuespen hori desagertu zen. Halaber, PFEZaren araudiari jarraituz, dieta horiek direla-eta atxikipena egin beharra dago; atxikipen horren zenbatekoa, aztertutako aldian, pasa da hasieran ehuneko 20koa izatetik gaur egun ehuneko 35ekoa izatera.

Kilometrajeari dagokionez, funtzionario publikoen baldintza orokorrak aplikatzen dira; hau da, 2010era arte, kilometro bakoitzeko 0,32 euro ordaintzen dira; data horretatik aurrera, berriz, 0,30 euro.

Egindako berrikuspena, funtsean, honako hauek izan ditu ardatz: legezko euskarria; aurrekontu-egoztea gastuaren arabera izatea; dokumentu bidezko justifikazioa eta motibazioa; hartzaileen identifikazioa eta kalte-ordain horretarako eskubidea, eta zenbatekoa arrazoizkoa izatea.

Berrikuspen horren ondorioa da egokia dela. Hau da, gastu guztiak behar bezala onetsita eta justifikatuta daude, aurrekontuari behar bezala egotzi zaizkie eta egiazki hautetsiei egin zaizkie. Hala eta guztiz ere, Nafarroatik kanpo egindako egonaldiengatik jasotako dietetan ez da beti jasotzen egonaldiaren egun zehatzen justifikazioa, dieta osagarria jaso ahal izateko behar dena.

Hurrengo taulan dieten guztizko gastua eta haien zenbatekoa bildu ditugu; gainera, Nafarroatik kanpoko egonaldietako dietei buruzko informazioa ematen da berariaz.

Izena	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Hautetsien dietetan egindako gastua, gutzira	80.050	108.700	88.720	61.440	69.410	61.170	68.100
Dieten guztizko kopurua	509	669	570	428	491	435	509
Nafarroatik kanpoko egonaldiengatik dietetan egindako gastua	9.250	25.000	15.320	4.600	2.070	690	2.300
Nafarroatik kanpoko egonaldiengatik dieten kopurua	37	100	62	20	9	3	10

Hau da, Komunitateak guztira 3.612 dieta ordaindu ditu, eta horiek 537.740 euroko gastua ekarri dute.

Ikusten den bezala, 2011koa da dieta kopuru handiena duen ekitaldia –669 dieta– bai eta gastu handiena ere –108.700 euro–; gero, 500 dieta inguruko kopuruan egonkortu da.

Aurreko datuen barruan, 241 dieta inguru Nafarroaz kanpoko joan-etorritarako dira, eta 59.230 euroko gastua ekarri dute. 79 bidaia ingururi dagozkie, bai Espainiaren barruan –71 bidaia– bai atzerrian –zortzi bidaia–.

Hurrengo taulan erakusten dugu zenbat pertsonak hartzen dituzten dietak eta hartzaile bakoitzak jasotako gehieneko eta gutxieneko zenbatekoa urte horietako bakoitzean; guztizko gastuaren ehuneko 78 bost onuraduni dagokie: sei urteko aldi 50.000 eurotik gora jaso dute.

Dietak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Hartzaile kopurua	15	10	10	11	8	7	7
Gutxieneko zenbatekoa	150	1.950	900	280	1.490	3.920	3.640
Gehieneko zenbatekoa	45.150	47.100	37.310	15.890	16.090	15.680	14.700

Ikus daitekeen bezala, nabarmen gutxitu dira bai onuradunen kopurua, bai jasotzen duten gehieneko zenbatekoa ere.

Geroztik geratu den egitate aipagarri gisa, esan behar dugu, berriz ere, Komunitateko 2017ko aurrekontua betearazteko oinarriek nabarmen aldatu dutela dietetarako aurretik zegoen araubidea. Hartara, funtsean, honako araubide hau ezartzen da:

A. Kideak batzar orokorraren, batzorde iraunkorraren, kontratazio mahaien, lanerako mahaien eta abarren saioetara joateagatik, 140 euro saio bakoitzeko.

B. Kideak Nafarroako Gobernuarekiko edo beste erakunde publiko batzuekiko –nazionalak zein nazioartekoak izan– batzarretara eta bileretara ordezkari gisa joateagatik, 140 euro saio bakoitzeko.

C. Kideak Nafarroatik kanpo egiten diren bileretara joateagatik, gaua kanpoan igarota, 200 euro egun bakoitzeko.

Aurreko kasuetan, kalte-ordaina ordainduko da organismo deitzaileak halakorik ezarrita ez daukanean.

D. Kideak Bardean egiten diren bileretara, obren bisitetara, landa-lanetara, ikuskatzeetara edo bisitariak artatzera bertaratzeagatik, 140 euro egun bakoitzeko.


Kasu horietarako guztietarako, urteko gehieneko muga gordin bat ezartzen da, 12.000 eurokoa.

Gainera, lehendakariarentzako aukerako araubidea arautzen da. Hartara, esaten da bere karguan jardun ahalko duela arduraldi partzialeko araubidean –hilean 40 orduko gutxieneko arduraldiarekin–, urtean 18.000 euro kobratuz. Ordainsari horrek ez du eskubiderik emanen bileretara joateagatiko kalte-ordainak jasotzeko.

Azken batez, araupetze berriarekin Komunitateko organoetako kideek eskubide dituzten ordainsari-kontzeptuak argitu eta normalizatzen dira, urteko zenbateko eta muga batzuk ezarrita eta lehendakariarentzako ordainsari-eredu berariazko bat diseinatuta. Kontuan hartu beharra dago kopuru horiek jasotzearen arrazoia dela kide horiei ordain bat ematea Komunitatearen alde duten arduraldiarengatik, zeren eta haien lanbide-jardun nagusia entitatetik kanpo baitute.

V.3. BILERETARA ETA KONFERENTZIETARA JOATEA

Bileretara eta konferentzietara joateak 102.028 euroko gastua ekarri dute guztira 2010etik 2016ra. Grafikoki, gastu horren urteko bilakaera ondoren azaltzen duguna izan da:



Ikus daitekeen bezala, aztertutako urteetan zehar gastu horiek nabarmen jaitsi dira. Hartara, lehenengo hiru urteetan gastua urte bakoitzeko 20.000 eurotik gorakoa da; bereziki nabarmen-tzekoa da 2011ko ekitaldikoa, 50.172 eurokoa izan baitzen; 2013tik gastua asko jaitsi zen: 1.000 eurotik 3.000 eurora bitartekoa da; 2016ko ekitaldian, azkenik, gastua 2.952 eurokoa izan zen, hau da, 2011koa baino ehuneko 94 txikiagoa.

Partida horri bertaratze horietatik heldutako gastuak egozten zaizkio: garraio-gastua, ostatua, mantenua eta abar. Gastu horien barruan, Costa Ricara egindako bidaiaren gastuak daude, V.4.4 atalean aztertzen direnak.

Gastuaren ehuneko 92 bidaiia-agentzia batek fakturatu zuen, eta ehuneko 6,5, berriz, kreditu-txartel korporatiboekin ordaindu zen.

Aurrekontu-kontzeptu horri egotzitako gastuaren ia ehuneko 100 aztertu da. Ondorioa da gas-tuak egoki baimenduta daudela, euskarri egokia dutela eta egoki kontabilizatu direla.

Bidaiia-agentziak egotzitako gastuei buruz egindako azterketan, ikusten dugu aurkeztutako justifikazioak erreferentzia egiten diela lurralde nazionalaren barruan nahiz kanpoan antolatutako bidaietatik heldutako gastuei; gastuaren % 84 Txilera, Costa Ricara, Israelera eta Brasilera egin-dako bidaietan egin da. Bidaiia-agentziaren fakturazioak ez du beti behar adina informazio ema-ten fakturatutako guztizko gastuaren xehakatzeari edo zehaztasunak ezagutzeko.

Bestalde, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den aipatutako bidaiia-agentziak 2010etik 2016ra egindako fakturazioaren zenbatekoa, zeina, guztira, 93.831 eurokoa izan baita:

Bidaiia-agentzia	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Urteko fakturazioa	18.324	48.886	21.784	589	776	740	2.732

Ez dago jasota urte horietan, ez eta aurreko urteetan ere –2006tik 2009ra agentzia horrek Komunitateari guztira 232.630 euro fakturatu zizkion– kontratazio-espediente bat izapidetu denik, kontratazio publikoan ezarritakoari jarraituz. Hala eta guztiz ere, 2013tik zenbatekoak nabarmen egin du behera, eta, horrenbestez, zenbatekoari erreparatuta, nahikoa izanen litzateke faktura aurkeztearekin.

Kreditu-txartel korporatiboekin ordaindutako gastuei dagokienez, 5.689 euro 2010etik 2013ra gastatu ziren, eta, funtsean, ikastaroetara joateak ekarritako gastuei dagozkie.

Gure gomendioak:

- *Baldin eta uste bada zenbatetsitako balioak legediak ezarritako mugak gainditzen dituela, kasuko kontratazio publikoko espedientea izapidetzea bidaia instituzionalak antolatzeko.*
- *Bidaia-agentziak egindako fakturak behar adina informazio bildu behar du egindako gastuen zehaztasunak eta xehakitzea ezagutzeko.*

V.4. BIDAIA INSTITUZIONALETAKO GASTUAK

Eskaera parlamentarioari jarraituz, berriaz berrikusi dira honako bidaiak instituzional hauek:

- Egiptora, 2006ko apirilean.
- Argentinara, 2007ko irailean.
- Senegalera, 2008ko otsailean.
- Costa Ricara, 2012ko otsailean.

Hurrengo taulan, laburpen bat ageri da bidaiak horiek Komunitateari ekarri zioten guztizko gastuari buruz eta horiek egin zituzten pertsonen kopuruari buruz:

Bidaiak	Ekitaldia	Pertsona-kopurua	Gastua
Egipto	2006	34	64.843
Argentina	2007	6	32.473
Senegal	2008	29	72.003
Costa Rica	2012	5	34.324
Guztira			203.643

Bidaia horietako bakoitzaren kasuan, honako hauek aztertutakoak dira: baimena, motibazioa, dokumentu bidezko justifikazioa eta kontabilitate-justifikazioa, joandako pertsonak eta bidaiaren ebaluazioa.

V.4.1. EGIPTORA EGINDAKO BIDAIA (2006)

Batzorde iraunkorraren 2006ko erabaki batez, baimena eman zen Egiptora bidaiak instituzional bat egiteko, Aguilaresko Zentroaren garapenerako oinarri gisa balioko duten azpiegiturak eta kudeaketa-ereduak ezagutzeko. Bidaia honako honetan zetzan: lau parke naturaletara eta Biosferaren erreserba batera bisita egitea; azken horren berezitasuna da Bardearen antzeko basamortu-eremu bat baduela, eta, halaber, Aguilaresko proiektuan jasotakoaren antzekoa izan daitekeen azpiegitura bat baduela.

Bidaia apirilean egin zen, eta Komunitateak ordaindu zuen: entitate partzuer bakoitzeko ordezkari bat joan zen, bai eta Aguilaresko Kontseiluko kideak ere. Kontseilua batzorde iraunkorreko zortzi ordezkari eta Batzar Nagusiko hiru ordezkari osatzen dute.

Bidaiaren helburuak

Batzorde iraunkorraren erabakian aipatutakoaz gainera, bidaiaren amaieran egindako ebaluazio-txostenean honako helburu hauek biltzen dira bidaiak dela eta:

- Egiptoren egungo egoerarako hurbiltze orokor bat bideratzea (politikoa, soziala, kulturala, ekonomikoa, paisaiari buruzkoa...).
- Gureaz bestelakoak diren beste kultura batzuk ezagutzeko, haietara hurbiltzea eta haiek ulertzea konbinatzen dituen programa batean parte hartzea.
- Kolektibo antolatuek kudeatutako landa turismoko esperientziak ateratzea, garapen-iturriak dibertsifikatzeko ahalegin baten barruan, mundu erreala utzi gabe.
- Ideiak lortzea Bardeako Parke Naturalean hezkuntzako, ekoturismoko eta ingurumen-kudeaketako proiektu bat ezartzeko, bereziki Aguilaresko eraikuntza-planari begira.
- Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea ordezkatzeko duten pertsonen eta kargudunen arteko bizikidetzak eta harreman-topaketak bideratzea.

Pertsonak

Batzorde iraunkorraren bidaiak baimentzeko aipatutako erabakian oinarrituta, espedientearen jasotako ageri dira Komunitatearen eta ente partzueren arteko komunikazioak; haien bidez, Egiptorako bidaiaren parte hartzeko aukera eskaintzen zaie.

Bidaia-agentziaren zerrendaren arabera, bidaia hori 34 pertsonak egin zuten; hona xehetasun batzuk:

- Komunitateko lehendakaria eta batzorde iraunkorreko sei kide.
- Toki entitate partzuerretako 19 ordezkari, guztira. Horietatik guztiek ordezkari bana bidali zuten, Aguedasek, Cortesek, Faltzesek eta Olivako Monasterioak izan ezik; beren aldetik, Cabanillasek eta Fustiñanak bina pertsona bidali zituzten.
- Sei pertsona Aguilaresi buruzko ideien lehiaketako epaimahaiko kide gisa, eta beste bi Eder Partzuergoaren izenean –partzuergo horrek Bardeako Parke Naturalaren Kontseilu Aholku-emailean parte hartzen du– eta tiro poligonoko ingurumen-unitatearen izenean –parkearen ingurumenaren kudeaketaren arloko eraginengatik–.

Azken batean, bidaiara joan ziren guztiak ez zeuden berariaz jasota batzorde iraunkorraren hasierako baimenean.

Bidaiaren gastuak

Kontabilitate-erregistroei jarraituz, bidaiaren guztizko gastua 64.843 eurokoa izan zen, horren barne direla batzorde iraunkorreko kideek jaso zituzten dietak.

Hurrengo taulan erakusten dugu gastu hori, bai eta horrek pertsona bakoitzeko eta egun bakoitzeko suposatu zuena ere.

Egiptora egindako bidaia	Zenbatekoa
Fakturatutako bidaia-gastuak	53.293
Batzorde iraunkorreko 7 kideren dietak	11.550
Egiptoko bidaia, guztira	64.843
Pertsona-kopurua	34
Dietarako eskubidea zuen pertsona bakoitzeko kostua	3.217
Dietarako eskubidea ez zuen pertsona bakoitzeko kostua	1.567
Zenbat egun	8
Dieta zuen pertsona bakoitzaren kostua eguneko	402
Dietarik ez zuen pertsona bakoitzaren kostua eguneko	196

Bidaia-gastuak, berez, dokumentatuta daude bidaia-agentziaren fakturazioan. Funtsean, joan-etorriei, bisatuei, hotelei, mantenu-gastuei eta aseguruiei dagozkie.

Bidaiaren ebaluazio-txostenak

Espedientean bidaiaren ebaluazio-txosten bat ageri da. Aguilaresko ideien lehiaketako epaimahaikidea zen Komunitatetik kanpoko kideetako batek, bidaiara joandako batek, egin zuen.

Txostenaren abiapuntua honako hauek dira: bidaiaren helburuak –aurreko atalean jasa aipatu ditugunak–, bidaiaren programa –laneko bisitak Basamortu Zuria eta Basamortu Beltza parke nazionalera eta Wadi Allaqi Biosferaren Erreserbara eta Bahariako oasira– eta amaierako balorazioak.

Balorazio horietan, bisitatutako lantokien deskribapen bat –ezaugarriak, azpiegiturak, estrategiak...– ageri da, baina ez dira ageri bertako arduradunekin lan-bilerarik egin izana; laburbilduz, honako balorazio hauek egiten dira:

- Proiektuan sartutako pertsona guztiek onartu dute Aguilaresko etorkizuneko eraikinen multzoa ulertu behar dela hezkuntzarako, turismorako, kulturarako eta Bardeako Parketa Naturalaren ingurumen-kudeaketarako erreferente baten gisara.
- Eraikuntza-proiektuak funtzionala, ekonomikoki jasangarria eta ingurumena errespetatzen duena izan beharko du, eta ingurunean integratuta egon beharko du.

- Ingurumen-heziketari buruzko programazio iraunkorra izango du, prestakuntza- eta informazio-eremu bat eskaintzeko helburuei erantzuteko; gainera, ingurumen-esparruko partaidetza- eta ikerketa-prozesuak lagunduko ditu.

Horretarako, honako hauek izanen lirateke lortu beharreko helburuak:

- Nafarroako eta kanpoko ikasleak ingurumen-errealitatera hurbiltzea, ingurune-ondare naturalaren, kultural-artistikoaren eta historikoaren ezagutza eta balorazioa sustatuz, ikaslearen parte-hartze aktiboan oinarritutako lan-metodologia batekin.

- Partaidetzazko herri-kultura eta -kontzientzia bat finkatzea, ingurumenarekiko eta naturarekiko elkarrekin harmoniatsua bideratzeko.

- Herritarrengan bizi diren ingurumena babestearen aldeko sentsibilitatea eta kontzientzia sortzera bideratutako informazioa ematea eta jarduerak sustatzea.

- Bideratzea ikasleek eta irakasleek ikuspegi kontserbazionista duen prestakuntza har dezaketela, garapen jasangarriaren politika orokor berrien esparruan.

- Ingurumenaren kudeaketa bat ezarri beharrean dauden organismo eta erakunde nazionalen eta atzerrikoekin lotzea.

- Zentroan ingurumen-informazioko eta -kudeaketako sistema bat ezartzea, ingurumen-informazioko iturri iraunkor bat izan dadin, gero Komunitateko kudeaketa-organismoek erabakiak har ditzaten.

- Egindako aurrerapenen zabalkundea egitea argitalpenen bitartez, eta Komunitatearen web-gunean datu-banku bat sortzea eta informazioa ematea.

V.4.2. ARGENTINARA EGINDAKO BIDAIA (2007)

Batzorde iraunkorraren 2007ko erabaki batez, baimena eman zen Argentinara bidaiari instituzional bat egiteko, bertako parke nazionalak eta haien kudeaketa-ereduak ezagutzeko. Bidaiara, nahi duten batzorde iraunkorreko kideak eta aholkulariak joango dira.

Zehazki, bidaiari 2007ko irailean egingo zen, eta Ischigualestoko parke naturala (Gizateriaren ondare deklaratu), Talampayako parke nazionala, Glaziarretako parke nazionala eta Iguazúko parke nazionala bisitatuko ziren. Espedienteak Talampayako parke nazionalako zuzendariaren (intendente) gonbidapen bat biltzen du.

Bidaiaren helburuak

Batzordearen erabakiaren xedeaz gainera, bidaiaren amaieran egindako ebaluazio-txostenetako batean, aipatzen da bidaiaren helburua dela kudeaketa-araubideak ezagutzea eta ekosistemak indartzeko formulen garapena ezagutzea, bai eta bisitaren xede diren parkeen baliabide naturalak balioan jartzea ere, Argentinako Hezkuntza ministroarekin eta Argentinako zenbait gune naturaletako zuzendarekin egindako elkarriketa pertsonalen bitartez.

Pertsonak

Bidaiari sei pertsona joan ziren: batzorde iraunkorreko lau ordezkari; ideien lehiaketako mahai-ko kide bat, Funesko ordezkari gisa, eta Félix de Azara Historia Naturaleko Fundazioaren ordezkari bat.

Bidaiaren gastuak

Argentinara joateko antolatzen zituzten bidaiak gorabehera handiak izan zituzten, hegazkin-bidaietako arazoengatik; hori dela eta, agentziak berak eskatu zuen 3.060 euroko itzulketa partziala egiteko; zenbateko hori Komunitateari itzuli zitzaion.

Ministroarekiko bilera eta Ischigualastoko parkeko bisita ezeztatu egin ziren, hegaldietako aipatutako atzerapen eta geroratzeez ondorioz.

Kontabilitate-erregistroei jarraituz, bidaiaren guztizko gastu garbia 32.473 eurokoa izan zen, arestian aipatutako itzulketa kenduta eta batzorde iraunkorreko kideek jaso zituzten dietak barne.

Hurrengo taulan erakusten dugu gastu hori, bai eta horrek pertsona bakoitzeko eta egun bakoitzeko suposatutako zuena ere.

Argentinara egindako bidaia	Zenbatekoa
Fakturaturako bidaia-gastuak (itzulketa kenduta)	21.323
Batzorde iraunkorreko 4 kideren dietak	11.150
Argentinako bidaia, guztira	32.473
Pertsona-kopurua	6
Dietarako eskubidea zuen pertsona bakoitzeko kostua	6.342
Dietarako eskubidea ez zuen pertsona bakoitzeko kostua	3.554
Zenbat egun	11
Dieta zuen pertsona bakoitzaren kostua eguneko	577
Dietarik ez zuen pertsona bakoitzaren kostua eguneko	323

Bidaia-gastuak, berez, dokumentatuta daude bidaia-agentziaren fakturazioan. Funtsean, joan-etorriei, bisatuei, hotelei, mantenu-gastuei eta aseguruiei dagozkie.

Bidaiaren ebaluazio-txostenak

Espedienteak bidaia ebaluatzeko hiru txosten dauzka:

a) 2007ko urriko data daraman txostena, egilea/egileak aipatzen ez dituen. Aurreikusitako programa eransten du, bai eta bisitatutako parkeen informazio orokorra eta bisitaren laburpen bat ere.

b) Batzorde iraunkorreko aholkulari baten txostena. Bere iritziz, Komunitateak turismoaren arloan eduki beharko lukeen estrategia markatzen du, besteak beste.

c) Batzorde iraunkorreko hiru kidek eta identifikatu gabeko beste pertsona batek aurkeztutako txostena.

Bisitatik ateratzen diren ondorio nagusietatik, honako hauen nabarmentzen ditugu:

- Bisitatutako hiru parkeetatik, Talampayakoa da Bardearekin antzekotasun handienak dituen; gainera, ideia-truke bat egin zen bertako arduradunekin. Beste bi parkeetatik ia ez da bisitatik eratorritako alderdi teknikorik aipatzen.

- Bardeako parke naturala entitate bakar batek kudeatzea abantaila handi bat da turismoaren, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloko politika komun bat finkatzeko, parkearen babesarekin eta kontserbazioarekin bat datorrena.

- Bardeako sustapen turistikoak bat etorri behar du oinarritzko azpiegitura turistikoaren eskaintza batekin: seinaleztapena, bisitariak hartzeko gunea, xenden eta ibilbideen sarea, naturan egiteko jarduerak eta abar.

Honako ekintza hauek proposatzen dira:

- Arlo hau arautuko duen turismoko araudi oinarritzko bat edukitzea, egun dagoenaren osagarri.

- Bardearen “balioari” buruz sentsibilizatzea bai bisitariak bai bertako biztanleak, eta behar den informazioa ematea hitzaldien, prestakuntza-ikastaroen, mintegien eta abarren bitartez.

- Ondarearen interpretazioa bultzatzea; terminoari eta dauden metodologiei buruzko informazioa handitzea.

- Aztertzea aukerarik ba ote legokeen tasa/sarrera bat kobratzeko, behin elementu turistiko zehatzak egituratuta daudenean: ibilbideen sarea, naturako jardueren eskaintza, bisitarien gunea, ondarea interpretatzeko elementuak eta abar.

- Bardearen esparruko sektore turistikoa indartzea, eskaintzen ardatzak ezartzeko (turismo parkeak), hain bidez gure bisitariak herri partzuerretan egonaldiak eginen dituztela segurtatuz.
- Teknikariekin azterlan eta lan zientifikoen proposamen batzuk baloratzea, zeren eta bisitatutako parkeetan zientzialarien lantalde berariazkoak bai baitaude lanean. Haien azterlanek balioan jartzen dituzte espazioak eta bisitariari haien garrantzia eta haiek babesteko beharra ematen diote ezagutzera.
- Historiaren, usadio tradizionalen, etnografiaren eta abarrekoen balioa aztertu eta balioan jarri beharreko elementuak dira.
- Ikasleen hurbilketa bultzatzea, ikastetxeekiko eta unibertsitateekiko hitzarmenak egitea, eta Nafarroako Gobernuarekin lan-ildo bat sortzea ikasleekin lan-ildoak jasotzeko (eskola praktikoak).
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak aztertzea, jasangarritasunaren ikuspuntutik.

V.4.3. SENEGALERA EGINDAKO BIDAIA (2008)

Batzorde iraunkorraren 2007ko azaroko erabaki batez, baimena eman zen Senegalera bidaia instituzional bat egiteko, bertako parke nazionalak eta biosferaren erreserba ezagutzeko. Batzorde iraunkorreko kideak, entitate partzuer bakoitzaren ordezkari bana eta batzorde iraunkorreko bidaia egin nahi duten aholkulariak.

Zehazki bidaia otsailaren 23tik martxoaren 1era izan zen, eta honako naturgune hauek bisitatu ziren:

- Retba Lakuaren Erreserba.
- Djoudjeko Hegaztien Parke Nazionala.
- Langue de Barbarieko Parke Nazionala.
- Joal-Fadioutheko Erreserba (Maskorren Uhartea).
- Saloum Ibaiaren Deltaren Parke Nazionala.
- Bandiako Erreserba Naturala.
- Goreeko Uhartea.

Bidaiaaren helburuak

Bidaiaaren helburua da funtsean Senegalgo naturgune horiek bisitatzea, haien kudeaketa-prozedurak eta esperientziak ezagutzeko eta Bardean aplikatu daitezkeen ekintza-ildoak ondorioztatzeko.

Pertsonak

Bidaia baimentzeko batzorde iraunkorrak hartu zuen erabakian oinarrituta, espedientean Komunitatearen eta ente partzuerren arteko komunikazioak ageri dira; haien bidez Senegalgo bidaia horretara joateko aukera eskaintzen da.

Bidaia-agentziaren zerrendaren arabera, bidaia hori 29 pertsonak egin zuten; hona joan zirenei buruzko datu batzuk:

- Komunitateko lehendakaria eta batzorde iraunkorreko bost kide.
- Toki entitate partzuerren 15 ordezkari. Faltzesek, Funesek, Fustiñanak, Azkoienei eta Olivako Monasterioak ez zuten ordezkariarik bidali.
- Aguilaresko ideien lehiaketako epaimahaiko bi kide (Erronkari Ibarraren eta Milagroko Udaren ordezkari), tiro poligonoko ingurumen unitateko bi ordezkari, UAGNko ordezkari bat, Bardeako Nekazarien Elkarteko ordezkari bat (biak ere Bardeako Parke Naturaleko Kontseilu Aholku-emaiaren ordezkari), Tuteran bizilekua duen gidari senegaldar bat eta Komunitateko lehendakariaren segurtasunerako pertsona bat.

Azken batez, bidaiara joan ziren guztiak ez zeuden berariaz jasota batzorde iraunkorraren alde aurretiko baimenean.

Bidaiaren gastuak

Kontabilitate-erregistroei jarraituz, bidaiaren guztizko gastua 72.003 eurokoa izan zen, horren barne direla batzorde iraunkorreko kideek jaso zituzten dietak.

Hurrengo taulan erakusten dugu gastu hori, bai eta horrek pertsona bakoitzeko eta egun bakoitzeko suposatu zuena ere.

Senegalera egindako bidaiak	Zenbatekoa
Fakturatutako bidaiak-gastuak	62.853
Batzorde iraunkorreko 6 kideren dietak	9.150
Senegaleko bidaiak, guztira	72.003
Pertsona-kopurua	29
Dietarako eskubidea zuen pertsona bakoitzeko kostua	3.692
Dietarako eskubidea ez zuen pertsona bakoitzeko kostua	2.167
Zenbat egun	6
Dietak zuen pertsona bakoitzaren kostua eguneko	615
Dietarik ez zuen pertsona bakoitzaren kostua eguneko	361

Bidaiak-gastuak, berez, dokumentatuta daude bidaiak-agentziaren fakturazioan. Nagusiki, joan-etorriak, bisitak, hotelek, mantenu-gastuak eta aseguruak dagozkie.

Bidaiaren ebaluazio-txostenak

Espedienteak bidaiak ebaluatzeko hiru txosten dauzka, baina horietako bakarrean identifikatzen da egilea (batzorde iraunkorreko kide bat). Txosten horietatik, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Bisitatu diren parke gehienek kudeaketa publikoa dute, eta bisita gidatua da ustiatzeko modu nagusia.
- Ia guztiek landazainen zerbitzua daukate eta, oro har, langileen espezializazio eta prestakuntza tekniko falta antzematen da.
- Kudeaketa planak, batzuetan, gaurkotu gabe daude eta ez diete egungo kudeaketa-beharrei erantzuten.
- Bisitetan zehar kontsultatutako kudeatzaileen eta langileen esanetan ekosistemen ezagutzara bideratzen diren baliabideak handitu behar dira, eta bisitariak harrera egiteko azpiegiturretan ere gehiago inbertitu behar da.
- Bai estazio biologikoak (lantalde zientifikoak harrera-guneak), bai bisitariantzako harrera-guneak mantentze-arazoak dauzkate edo zaharkiturik geratu dira, baliabide ekonomikoak faltaren ondorioz.
- Kasu guztietan agerian gelditzen da tokiko populazioek naturguneekin daukaten lotura handia, dauden erabilera tradizionalen bitartez; horrek, gainera, turismo gehiago erakartzen du, eta erronka bat da kasu bakoitzaren kudeaketarako.
- Ez da aurkitu ingurumenaren arloko sentsibilizazio argirik dagoenik babestutako eremuen biztanleen artean, baina bai aipatu da inguruneen populazioarentzako eta bisitariantzako hezikuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa gehiago sustatu behar direla.

Azken batez, azpiegituren zuzkidura hobea behar erreal bat da, noizbehinkako bisitaria eta entitate partzuerretako biztanleak sentsibilizatu nahi badira. Kontua da oreka bat bilatzea erabilera tradizionalaren eta haren kontserbazio-helburuen artean; hori dela eta, eginkizun horretaz

kontzientziatu behar dira Komunitateko abeltzainak, nekazariak, ehiztariak eta arrantzaleak. Horretarako, ingurunean integratutako azpiegiturak eduki behar dira:

- Estazio biologiko bat, zeinak zientzialarien jarduera handiagoa bideratuko baitu, bai eta azterlanetan inbertitzea ere.
- Bisitariak hartzeko zentro bat eta interpretazio zentro bat, non bisitariak erreferentziako toki bat izanen baitu, informazio orokorrerako, parkearen aberastasun ekologikoari buruzko informazioarako, zerbitzu publikoetarako eta abarretarako.
- Naturaren gela bat edo heziketa-zentro bat, non aurreikusitako jarduerak eta tailerrak egingen baitira. Horretan, gainera, ostatua eta mantenua emateko aukera legoke.
- Ikasleentzako jatetxe-gune bat, zeina publiko orokorrari ere eskaini ahalko baitzaio.
- Bestelako turismo-azpiegiturak: paisaiaren behatokiak, seinaleztapena, hegaztien behatokia...
- Bardeak zigilu, logotipo eta abarrekoekin identifikatzea...
- Gutxienez ere astebeteko turismo-pakete bat sortzea, bai bisitari espezializatuentzat, bai parkea bisitatu nahi dutenentzat.

Oinarritzko azpiegitura horiez gainera, proposatzen da landazainen lantaldeari prestakuntza eta gaikuntza ematea, Bardeako parke natural osoa efizientziaz gainbegiratu, kontrolatu eta zaindu ahal dezaten, irakaskuntza-eginkizuna betetzeaz gainera, kontserbazioko eta errespetuko ingurumen-balioak irakatsiz. Halaber, premiatzen da etorkizunean bisita gidatuko zerbitzuak ezartzeko aukera baloratzeko –horri begira, “gida espezializatuen” kolektibo bat sortuko litzateke, publikoa zein pribatua–, bai eta parkerako sarrera-txartel bat kobratzeko aukera ere.

V.4.4. *COSTA RICAKO BIDAIA (2012)*

Hasiera batean bidaia 2010eko otsailerako zegoen aurreikusita; halere, batzorde iraunkorrak 2010eko urtarrilean erabaki zuen hura geroratzea, Haitin izandako gertaerak (lurrikara bat) eta egoera ekonomiko orokorra tarteko. Halaber, erabaki zen herrialde horri 15.000 euroko giza laguntza ematea. Geroratze horrek 5.250 euroko deuseztatze-gastuak eragin zituen.

Aurrerago, baimena eman zen bidaia instituzionala 2012ko otsailaren 22tik martxoaren 3ra egiteko. Funtsean, Costa Ricako honako biosferaren erreserba hauek bisitatu ziren:

- Uraren eta Bakearen Parke Nazionala.
- Sumendien Mendikate Zentrala.
- Adiskidetasunaren Erreserba.

Halaber, nabarmendu behar dugu bidaia-programaren prestaketan bisitatutako bi erreserbatako teknikariek ere hartu zutela parte.

Bidaiaren helburuak

Bidaiaren helburu nagusia sartzen da UNESCOk deklaraturako biosferaren erreserbei esleitutako hiru eginkizunekin (kontserbazioa, garapena eta laguntza logistikoa) lortutako gai guztiei buruzko ezagutzetan eta esperientzietan elkarri laguntzeko eta elkarrekiko trukean jarduteko politikaren barruan.

Pertsonak

Bidaiara bost pertsona joan ziren; hona hemen xehetasunak:

- Batzorde iraunkorreko hiru kide.
- Entitate partzuerren ordezkari joandako bi alkate (Milagrokoa eta Azkoiengoa).

Bidaiaren gastuak

Kontabilitate-erregistroei jarraituz, bidaiaren guztizko gastua 34.324 eurokoa izan zen, horren barne direla deuseztatze-gastuei dagokien 5.250 euroko kopurua eta batzorde iraunkorreko ki-deek jaso zituzten dietak.

Hurrengo taulan erakusten dugu gastu hori, bai eta horrek pertsona bakoitzeko eta egun bakoitzeko suposatzen duena ere.

Costa Ricako bidaiak	Zenbatekoa
Fakturatutako bidaiak-gastuak (deuseztatze-gastuak barne)	27.424
Batzorde iraunkorreko 3 kideren dietak	6.900
Costa Ricako bidaiak, guztira	34.324
Pertsona-kopurua	5
Dietarako eskubidea zuen pertsona bakoitzeko kostua	7.785
Dietarako eskubidea ez zuen pertsona bakoitzeko kostua	5.485
Zenbat egun	9
Dietak zuen pertsona bakoitzaren kostua eguneko	865
Dietarik ez zuen pertsona bakoitzaren kostua eguneko	609

Bidaiak-gastuak, berez, dokumentatuta daude bidaiak-agentziaren fakturazioan. Honako hauek jasota daude: joan-etorriak, bisatuak, hotelak, mantenu-gastuak, aseguruak eta ibilgailu bat kontratatzea, gidaria eta tokiko gida izanzen zen pertsona batekin.

Bidaiaren ebaluazio-txostenak

Espedienteak bidaiak ebaluatzeko txosten oso bat badauka. Haren ondorio aipagarrienak ondoren azaltzen ditugunak dira:

- Costa Ricak ez du kudeaketa deszentralizatuko eredurik kontserbazio eremuetarako: guztiak Ingurumeneko eta Energiako Ministerioaren menpekoak dira. Bardeako erreserbaren kudeaketa efizienteagoa eta errazagoa da, zeren eta lurraldeko organo kudeatzaile bakarra baita.

- Ikusten da gutxitan egoten direla kontserbazio-eremu bakoitzerako kudeaketa-plan berariazkoak; izan ere, nazio mailako plan orokorrak dira. Bardeako NBAPa plan egokiagoa izanzen litzateke baldin eta behar bezala gaurkotzen bada eta plan berariazkoak garatzen badira. Abeltzaintzako barrutiek egin den bezala, horrelako ekimenak zabaldu beharko lirateke turismorako, nekazaritzarako eta abarretarako.

- Kudeaketa-lanetan, gida-lanetan, jatetxeetan eta abarretan diharduten langileen gaikuntza, bai funtzionarioena bai pribatuena, kontuan hartu beharreko funtsezko alderdi bat da Bardeako kasuan.

- Bardeako Komunitateari gomendatzen zaio jarrai dezala entitate partzuerrei eta haietako biztanleei sostengua emateko lanetan, dela haien usadio tradizionalen garapen historikoaren bidez, dela turismoa bezalako esparruak garatzeko ekimen berrien bidez.

- Basozaintzaren kontrola eta babesa oso ongi egituratuta dago Costa Rican. Uste da Bardean gabezia bat dagoela horri dagokionez; hura zuzentzeko gomendatzen da.

- Bisitatuak naturaguneek bertako giden kalitate handiko zerbitzu bat badaukate; interesgarria litzateke gai hori garatzea Bardeako kasuan.

- Costa Rican babestuta dauden guneek ibilbideen sare bat dute, bai eta jardueren eskaintza zabala ere, eta horrek aukera ematen dio bisitariari ingurunearekin bertatik bertarako kontaktua izateko.

- Bisitatuak kontserbazio gune guztietan sarrera bat ordaintzen da. Prezioa desberdina da bertakoentzat eta atzeritarrentzat; hori dela eta, herri partzuerretako biztanleak salbuets litezke, eta haien bisitak eta sentsibilizazioa sustatu beharko lirateke.

- Parke nazional guztietan berariaz debekatuta dago kanpatzea, Bardean bezala.

Amaierako ondorio gisa, txostenak dio Komunitateak turismoaren kudeaketa garatzeko egin dituen urratsak Costa Ricako lurraldean aurkitutako mailatik gora daudela. Egin behar den bakkarra da turismo-eskaintza hobetzen, gaurkotzen eta zabaltzen jarraitzea, betiere arrazoiz eta modu jasangarrian.

Halaber, bidaian, bi hitzarmen sinatu ziren Sumendien Mendikate Zentralaren Erreserbarekin eta Uraren eta Bakearen Erreserbarekin, UNESCOren erreserben arteko lankidetzaz errazteko bidean.

V.4.5. AZTERTUTAKO BIDAIA INSTITUZIONALETAKO GASTUEI BURUZKO ONDORIOAK ETA AMAIERAKO GOGOETAK

Egindako azterketatik, honako ondorio orokor hauek nabarmendu ditzakegu:

Lehen. Aztertutako bidaia instituzional guztiak baimenduta daude eta dokumentu bidez justifikatuta daude bidaia-agentziaren fakturarekin; bestela ere, ongi kontabilizatuta daude. Turismo moko behe-denboraldian egiten dira.

Bigarrena. Bidaiaren motibazioari dagokionez, honako hauek esan behar ditugu:

- Ez dago dokumentu bidez justifikatuta bisitatu beharreko herrialdeak eta naturguneak nola hautatu diren.

- Gainera, lehenengo hiru bidaien (Egipto, Argentina eta Senegal) arrazoia da beste esperientzia batzuk aztertzea Aguilaresko Zentroan ezarri beharreko eginkizunak eta jarduerak finkatu eta zehazteko; proiektu hori definizio-fasean zegoen une haietan.

- Erabiltzen den beste arrazoi bat da Komunitateko kargudunen kontzientziazioa sustatu behar izatea, parke naturalaren/biosferaren erreserbaren deklarazioak eskatzen duen kudeaketaren betekizun berriei buruz.

- Ez dago beti jasota bisitatutako naturguneetan lan-bilerarik egin izana.

Hirugarrena. Bidaia horietan parte hartu zuten pertsonen dagokionez:

- Batzorde iraunkorrak hasieran hartutako erabakietan bidaia egiteko baimenduta dauden pertsonak ez datoz beti bat gero bidaia egiazki egin dutenekin.

- Egiptora eta Senegalera egindako bidaietan, gure iritziz, pertsona gehiegi daude. Pertsona horiek Komunitatearekin duten loturari dagokionez, esan beharra daukagu ezen, hautetsiez eta herri partzuerretako ordezkariak gainera, Bardeako Parke Naturaleko Kontseilu Aholku-emaileko eta Aguilaresko ideien lehiaketako epaimahaiko kideak ere egon zirela, baina ez, ordea, parke naturalaren kudeaketarekin zuzenean lotuta dauden pertsonak.

- Aztertutako bidaietako bakarrean ere ez da Komunitateko teknikaririk egon.

Laugarrena. Bidaia guztiek balorazio-txosten bat edo txosten batzuk badauzkate –zorrotasun gehiagokoak edo gutxiagokoak–, Komunitateko kudeaketarako balizko eraginei buruz.

Azken batean, Ganbera honen iritziz, kudeaketa publikoaren buru-buruan gastu publikoa neurritik, zuhertasunez eta arrazoiz egiteko printzipioek egon behar dute; printzipio horiek nekez ikus daitezke aztertutako bidaietatik gutxienez ere bitan.

Hala eta guztiz ere, bidaia horien emaitzek justifikatu edo/eta berretsi ahal izan dituzte Komunitateak 2000tik garatutako jarduketa-ildoak, zeinak heldu baitira Bardea parke natural eta biosferaren erreserba deklaratu izatetik; halaber, balio izan dute entitate partzuerretako ordezkariak kontzientziatzeko Bardeako kudeaketa tradizionalan egin beharreko aldaketari buruz, eta aldaketa horietan parte hartzeko.

Etorkizuneko bidaia instituzionalei begira, honako hauek gomendatzen ditugu:

- *Komunitatearen bidaia instituzional horien garapena arautuko duen prozedura landu eta onestea.*

- *Bidaia nola hautatu den behar bezala motibatzea; egin beharreko lan-bisiten helburuak eta plangintza zehatza ematea.*

- *Bidaiak egiten dituzten pertsonak zuzenean sartuta egotea Komunitatearen jardueran eta kudeaketan.*
- *Gastu normal edo arruntak izatea, zenbatekoari eta egiten direneko inguruabarrei dagokienez.*
- *Bidaia bakoitzaren amaieran txosten tekniko bat egitea haren baliagarritasunari buruz eta Komunitatearen kudeaketa estrategikoan izan dezakeen aplikazioari buruz.*

V.5. KONTRATAZIO PUBLIKOA

Kontabilitateko dokumentazioaren bitartez eta Kontratazio Atariko iragarkien bitartez, funtsean aurrekontuaren 6. kapituluari egotzitako kontratuen honako lagin hau aztertu dugu:

Izena	Tasa Kontratua	Adjudikatze prozedura eta irizpidea	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Onartutako eskaintzen kopurua	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Adjudikazioaren urtea
Askak instalatzea eta urez hornitzea	Obra	Irekia/ eskaintzarik onena	1.398.780	12	1.104.197	2015
Aguilaresko Zentroaren erreforma eta zabaltzea	Obra	Irekia/ eskaintzarik onena	951.809	11	696.723	2014
Makineriarako biltegia	Obra	Irekia/ eskaintzarik onena	318.065	12	298.503	2015
Turismo Informaziorako Zentroaren Kudeaketa	Bertaratzea ⁽¹⁾	Irekia/ eskaintzarik onena	101.157	5	91.041	2013
Asketarako obra zuzendaritza eta laguntza	Laguntza	Irekia, European publikizaterik egin gabe / eskaintzarik onena	59.000	4	29.000	2015
Turismo Jasangarriaren hautagaitzarako dossierra	Laguntza	Irekia/ eskaintzarik onena	45.000	9	Esleitu gabe	-
Makina motonibelagailua	Hornidura	Irekia/ eskaintzarik onena	172.414	1	172.414	2010
Atoia	Hornidura	Europar Batasunean publikizaterik gabeko prozedura negoziatua/prezioa	26.500	3	23.900	2016

(1) Iragarkian "zerbitzu publikoa ematea" aipatzen bada ere, egiazki laguntza kontratu bat da.

Gainera, azterlan eta ikerketa zientifikoen kontratuatarako lagin bat aztertu dugu; kontratu horiek guztira 1,4 milioiko gastua eragin dute aldi horretan; 0,7 milioi euro egiten duen lagin bat aztertu dugu.

Aztertutako laginaren guztizkoak gastuaren ehuneko 60 egiten du.

Ondoren azaltzen ditugu egindako lanaren ondorio eta iruzkin nagusiak. Oro har, hurrengo paragrafoetan zehazten diren zenbateko guztiek ez dute BEZaren eragina jasotzen, salbu eta hori berariaz aipatzen denean.

V.5.1. OBRA KONTRATUAK

Askak instalatzea eta urez hornitzea

Bardeako Natur Baliabideak Antolatzeke Plana aplikatuz, lurraldea nekazaritzarako eta abeltzaintzarako 87 barrutitan banatu da, lurraldeko erabilera ekonomiko tradizionalak optimizatzeko, betiere ingurumena babestearen ikuspuntutik. Antolaketa berri hori mugarri garrantzitsua da parke naturalaren kudeaketarako eta babeserako.

Helburu horrekin, aurreikusten da abeltzaintzarako azpiegitura bat eraikitzea barruti bakoitzean: aska bat eta lurperatutako ur-hornidura bat izanen ditu. Horren helburua da saihestea baltsak zuzenean erabil daitezen, besteak beste erabilera horrek abeltzainei eta pertsonei dakarkien arrisku sanitarioa gutxitze aldera. Halaber, suteen aurkako instalazioetarako ur-hornidura jasotzen da.

2012ko abenduan, Bardeako Komunitatearen eta El Ferial Ureztatzaileen Elkartearen arteko lankidetzat hitzarmen bat sinatu zen. Ureztatzaileen Elkarte hori Bardeako Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Nagusian sarturik dago. Azken hori zuzenbide publikoko korporazio bat da, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari atxikia. Hitzarmen horren bitartez, El Ferial Ureztatzaileen Elkartek bere gain hartzen du obren kudeaketa; haietarako finantzaketa, ordea, Bardeako Komunitateak ematen du. Halaber, El Ferial Elkarteak eraikitako azpiegituren ur-hornidura eta mantentzea 25 urtez hartzen du bere gain –beste 25 urtez luza daiteke–.

Urtegiko hartunea egiteko obren hasierako proiektua 2013ko martxoan idatzi zen. Hitzarmenaren arabera, enkargu hori Ureztatzaileen Elkarteak egin zuen, bera baita haiek betearaztearen

ardura duen entitatea. Proiektu horretan jasotako obretarako zenbatetsi den kostua 1.017.541 eurokoa da.

Gero, 2013ko amaieran, Bardeako Batzorde Iraunkorrek erabaki zuen proiektu hori bi proiektu bereizitan banatzea:

a) El Ferial Urtegiko hondoko hartunearekiko konexioa, punpatze- eta iragazte-estazioa eta bulkadaren lehen tarte, bideetara arte. Obra horiek Ureztatzaileen Elkartek egingen ditu, eta guztiz finantzatu ditu Bardeako Komunitateak.

b) Banaketa-sarea eta askak. Bardeako Komunitateak egingen du zuzenean.

2014ko apirilean, hasierako proiektuaren **separata** bat idatzi zen, urtegiko obrei dagokiena, bai eta **aldaketa** bat ere, hodian eta asken trazadura berriekin. Aldaketa horrek berekin ekarri zuen kostua nabarmen handitzea -0,63 milioi-, funtsean Nafarroako Gobernuak eskatu zuelako hodiak ez zitezela pasa abelbideetatik.

Azkenean, trazadura berria jasota, 2014ko azaroan, instalazioetarako eta ura asketara eramateko proiektu aldaturako **gehigarri** bat onetsi zen.

A) Bardeako Komunitateak egindako obrak

Aipatutako gehigarrian esaten da obraren aurrekontua 1.398.780 eurokoa dela. Zenbateko hori bat dator obraren lizitazioaren zenbatekoarekin. Obrak 39 aska nekazaritzarako eta abeltzaintzarako beste hainbeste barrutitan instalatzeko dira.

Adjudikaziorako prozedura gisa, prozedura irekia aplikatu zen, eskaintza aldekoenaren irizpidearekin. Obrak egiteko 180 eguneko epea eman zen, betiere behar diren geldialdiekin, debeku biologikoko egunetan; egun horiek epetik kenduko dira.

Baldintza-orriek balorazioa zehaztu eta kuantifikatzen dute, irizpideei dagokienez: prezioa, eskaintza teknikoak, egiteko epea, eraikuntzaren ondorengo zerbitzua eta berme-epearen luzatzea.

Lizitaziorako iragarkia 2015eko urtarrilean argitaratu zen. Urte horretako otsailean, kontratazio mahaia eratu zen, eta egiaztatu zen 13 eskaintza zeudela. Guztiek betetzen zituzten eskatutako baldintzak eta dokumentazioa. Halaber, bilera horretan aipatzen da proiektua idatzi zuenak, eskaintza teknikoak baloratzeko mahaiko aholkulari gisa, ez zuela prozesuan esku hartuko "arrazoi pertsonalak" tarteko.

Horrek eragin zuen adjudikazioaren izapidetzea eta programatzea -eta, horrenbestez, obra egitea- atzera zedila; izan ere, haren obra zuzendaritza eta laguntza teknikoak ez ziren 2015eko azarora arte adjudikatu (ikus adjudikazio hori laguntza kontratuei buruzko atalean, V.5.2 atalean hain zuzen).

2015eko abenduan, mahaia bildu zen eta erabaki zuen aurkeztutako eskaintza bat baztertzeari, zeren eta hura egin zuen enpresa hartzekodunen konkurtsoan baitzegoen. Halaber obra zuzendaritzak txosten bat egin zuen, gainerako proposamen teknikoak baloratzeko. Irizpide guztietan hobekien baloratuta zegoen enpresari adjudikatu zitzaion, 1.104.197 euroko zenbatekoan, ehuneko 21,06ko beherapenarekin eta hura egiteko 143 eguneko epearekin.

Epeen gaiari dagokionez, ikusten da kontraesan bat badagoela honako hauen artean: "egiteko epea" izeneko 3. klausula -180 egun aipatzen ditu, lanegunak edo egun naturalak diren esan gabe; halere, mahaia argitu du egun naturaltzat hartu behar direla- eta 8.2.B klausula, zeinak obrako egun efektiboak buruz hitz egiten baitu. Enpresa adjudikazio-hartzaileak guztira 143 lanegun eskatzen ditu, hau da, 199 egun natural -epe hori berariaz jasota dago sinatutako kontratuan-; horrenbestez, baldintza-orrietako 3. klausulan ezarritakoa gainditzen du; gainerako eskaintzaileek 144 egun proposatzen dituzte. Horrenbestez, guztiek -adjudikazio-hartzailea barne- puntuazio bera lortu dute, baldintza-orrien arabera.

2016ko martxoan, obra hasierako kontratua sinatu zen. Hala eta guztiz ere, urte horretako maiatzean jakin zen enpresa adjudikazio-hartzaileak hartzekodunen aurre-konkurtsoko bat aurkeztu zuela, eta uztailan hartzekodunen konkurtsoko egoera zegoela deklaratu zen.

2016ko uztailaren 22an, ordura arte egindako obren egiaztatze-akta egin zen, eta txosten bat egin zen, obraren egoera erreala eta egiteko gelditzen zena ezagutzeko. Laburbilduz, data horretan, lau ziurtagiritan formalizatutako obrak eginak ziren, 631.474 euro egiten zutenak, hau da, adjudikatutako zenbatekoaren ehuneko 57. Adjudikazio-hartzaileak zenbateko hori onartu zuen.

2016ko irailean, adjudikazio-hartzaileak –konkurtsoko administratzaileak baimenduta– adierazi zuen kontratua beste enpresa bati laga nahi diola. Batzorde iraunkorrak asmo hori onartu zuen, egiaztatu ondoren enpresa berriak baldintza-orrietan jasotako baldintzak betetzen zituela. Irailaren 20an Komunitateak eta enpresak kontratu berria sinatu zuten: 472.723 euroko zenbatekoa du.

Lagapen horren izapidetzea Kontratuei buruzko Foru Legearen 111. artikulua indarrik ez duen bertsio baten arabera egin zen. Izan ere, 32/2013 Foru Legeak¹ artikulua hori aldatu zuen eta ezarri zen ezen, konkurtso-egoera batean, adjudikazio-hartzaileak Administrazioari jakinarazi behar diola kontratua lagatzeko asmoa duela, Administrazioak lagapena lizitazioan parte hartu zuten gainerakoei eskaini ahal izateko, sailkapenean ageri diren ordenan. Baldin eta gainerako eskaintzaileek aukera hori uko egiten badiote, lagatzaileak libreki aukeratzen ahalko du lagapen-hartzailea.

Aztertutako kasuan, esleipen-hartzaile berriaren hautatzea hartzekodunen konkurtsoan zegoen enpresak egin zuen, aipatutako artikulua aurreko bertsioari eta obra arautzen duten baldintza-orrietan adierazitakoari jarraituz.

2017ko martxoan, obrak jaso izanaren akta sinatu zen. Aurrez aipatu ditugun gorabeheren gainetik, lehenengo kontratuan ezarritako epea bete zen.

Obren bigarren aldi horretan, adjudikazio-hartzaile berriak hiru ziurtagiri aurkeztu zituen, amaierakoa barne: 561.759 euro egiten zuten.

2017ko apirilean, obra zuzendaritzak egindako obrei buruzko amaierako txostena egin zuen. Egindako obrak, emandako ziurtagiriak eta antzemandako desbideratzeak aztertu zituen. Laburbilduz, ziurtatutako obra 1.193.233 eurokoa da, eta ehuneko zortziko desbideratzea ageri du lizitazio-preziotik.

Exekuzioan gertatutako prezio-handitze hori funtsean lau aldaketei zor zaie –39.017 euro egiten dute eta Komunitateak eta enpresak onartutako justifikazio- eta balorazio-txostenak eta prezio kontrajarriei buruzko txostena daukate–, bai eta egindako indusketa-lan bat aurreikusitakoa baino handiagoa izateari ere –obra-unitate berri bat, 80.928 eurokoa–; azken hori Nafarroako Gobernuak landazainen eta Komunitateko biologoaren ekimenez egin zen, hegaztien habia-egiteak hobetzeko. Formalki, halere, ez dago jasota kontratazio-organoaren alde aurreko ebazpenik, aldaketa horiek baimentzen eta onartzen dituenik.

B) Ureztatzaileen Elkartek egindako obrak

Sinatutako hitzarmenari jarraituz, El Ferial Ureztatzaileen Elkartek egindako obrak hark berak adjudikatu zituen, eta 2016ko abenduan Bardeako komunitateari egindako obren amaierako likidazioa aurkeztu zion, bai eta proiektu desberdinetan egindako gastuen ziurtagiriak eta kontu korrontearen saldoa ere.

¹ 2013ko azaroaren 11ko NAO on argitaratua eta, horrenbestez, aztertutako lizitazio-prozesuari aplikatzekoa; izan ere, azken horren baldintza-orriak 2014ko azaroan onetsi ziren eta lagapena, berriz, 2016ko irailean gauzatu zen.

Hartara, aurkeztutako zenbatekoa 1,74 milioikoa da (BEZa barne), eta egindako zortzi proiektu hauen arabera xehaka daiteke:

Proiektua	Zenbatekoa
Presaren lubeta	160.862
El Ferial aldeko askak	85.625
Cinco Villasko erretenarekiko konexioa	251.943
Cuatro Cabañas aldeko asken banaketarako proiektua	36.355
Cuatro Cabañasako baltsa	779.483
Planoko eta Blancako asketarako proiektua	19.046
Planoko eta Blancako askak	401.095
Punta del Olmoko baltsako obrak	8.534
Banku-gastuak	662
Guztira	1.743.703

Obra horiek ordaintzeko, Bardeako Komunitateak 0,9 milioi ordaindu zituen hitzarmena sinatzerakoan, 2012an; 2013an, berriz, milioi bat ordaindu zuen. Guztira, obra horiek finantzatzeko, 1,9 milioi ordaindu dizkio Ureztatzaileen Komunitateari. Zenbateko horiek 6. kapituluko “Ureztatzaileen Elkartearen hitzarmeneko abeltzainen barrutiak” partidari egozten zaizkio, 2012ko eta 2013ko ekitaldietan.

1,9 milioiko ordainketaren eta 1,74 milioiko gastuen arteko aldea da berariazko kontu korrante batean dagoen saldoa –156.296 euro–. Saldo hori erabiliko da egindako obretan frogak eta hobekuntzak egitetik heldu diren gastuak ordaintzeko.

Aguilaresko Zentroaren erreforma eta zabaltzea

Aguilaresko Zentroa Bardeako parke naturalarekin mugakidea den antzinako bazkaleku batean dago. Komunitateak erosi zuen hura. 2006an, ideien lehiaketa bat egin zen biosferaren erreserbaren ingurumen-hezkuntzarako etorkizuneko zentroa eta turismo-informazioko gunea diseinatzeko. Lehiaketa irabazi zuen proiektuak, zentroa eta informazio-guneaz gainera, ostatu-eta jatetxe-zerbitzuak ere hartzen zituen, zazpi milioi euro inguruko kostu zenbatetsiarekin.

Lehiaketan aurreikusitako obrak baino lehen, 2008an antzinako korralea egokitzeko obrak hasi ziren, bertan informazio-gunea, makineriarako biltegia eta bilera-tokia egiteko. Proiektua zuzenean enkargatu zitzaion ideien lehiaketa horretan parte hartu zuen lantalde aholku-emaileari, eta adjudikazio hori justifikatu zen esanez aholku-emate hura desinteresatua izan zela. Kontratu horiek Ganbera honek Komunitateari buruzko aurreko txostenean aztertu zituen.

Gero, Batzarrak erabaki zuen proiektu irabazlea ez egitea, oso garestia baitzen, eta haren ordeztu onetsi zuen lehendik zeuden instalazioak egokitzea ingurumen-heziketako ekintzak egin ahal izateko.

Deskribatutako kontratua informazio-gunea erreformatu eta zabaltzeari buruzkoa da. Aparkaleku bat, makineriarako antzinako biltegia erabilera anitzeko eremu bilakatzea eta eraikinaren barruko patioan erakusketetarako eremu bat edukitzeko zenbait jarduketa egitea aurreikusten ditu (hori guztia I. fasea deituta sartzen da). Geroko esku-hartze baterako uzten da kanpoko urbanizazioko esku-hartzea eta anfiteatroa, II. fasea deituta. Proiektuaren idazketa ideien lehiaketa iragazi zuen lantaldeari enkargatu zitzaion, eta bi proiektu biltzen ditu, fase bakoitzeko bat.

I. faseko proiektuaren arabera, obretarako aurrekontua 951.809 eurokoa da. Zenbateko hori kontratuaren lizitazioari dagokiona da.

Prozedura ireki baten bidez esleitu zen, eta hautapen-irizpide gisa, eskaintza aldekoenarena hartzen da. Azpiatalak esleitzeko eta puntuatzeko irizpideak baldintza-orrietan jasota daude, eta honako hauei buruzkoak dira: prezioa, eskaintza teknikoa, egiteko epea, kalitatea segurtatzeko plana, eraikuntza ondoko zerbitzua eta berme-epearen luzatzea. Hala eta guztiz ere, aipatutako

baldintza-orrietan ez da xehetasunekin zehazten zein den eskaintza teknikoko puntuen banaketa (100 puntutik 20).

Kontratazio-mahaiak, proiektua idatzi zutenen aholkuarekin, proposatu zuen lanak eskaintza onenari adjudikatzea, 696.723 euroko prezioan (ehuneko 26,80ko beherapena).

Espedientean ez dago jasota adjudikazio-hartzaileak bere betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean egotea. Jasota dagoen informazioan erantzukizun-peko adierazpen bat baizik ez dago, lizitazio-fasean aurkeztua.

Halaber, espedienteak "nabea zabaltzeko aurrekontu" bat badauka, bertan "erakusketa eremu bat" jartzeko: 102.767 eurokoa da. Aldaketa hori jabeak onetsia da eta kontratistak ontzat emana dago, baina kontratazio-organoaren izapidetzea eta berariazko onespena ez ziren egin obrei ekin baino lehen. Ez zen baloratu, ezta ere, horrek obraren exekuzio-epean, oro har, izanzen zuen eragina.

2015eko uztailan, amaierako likidazioa aurkeztu zen, 835.863 eurokoa; hau da, adjudikazio-zenbatekoa baino ehuneko 19,97 gehiago. Aipatu berri dugun aldaketaren zenbatekoa kontuan hartuta, portzentaje hori ehuneko 5,22koa da.

Proiektuaren bi faseak idatzi zituztenek, obraren zuzendaritzak eta ingeniari-tzerbitzuek jasotako ordainsariak 172.448 eurokoak izan dira.

Makineriarako biltegia

Batzorde iraunkorraren 2014ko maiatzeko bilkuran, azaldu zen nekazaritza-makineriarako beste biltegi bat behar zela, zeren eta ordura arte erabiltzen zena erabilera anitzeko eremurako erabili behar baitzen, Aguilaresko erreforma- eta zabaltze-proiektuaren barruan, aurreko kontratuaren harira aipatu den bezala.

Obra horretarako proiektua saio horretan onetsi zen, bai eta baldintza-orriak eta lizitazio-prozedurari hasiera ematea ere. Lizitazioaren zenbatekoa –318.065 euro– bat dator proiektu horretan jasotako exekuzio materialaren aurrekontuaren zenbatekoarekin.

Baldintza-orriek zehaztasunez definitzen dituzte balorazio-irizpideei eta haien azpiataleiei eman beharreko puntuak. 13 eskaintza aurkeztu ziren, eta horietako bat ez zen onartua izan, zeren eta ez baitzen eskatutako dokumentazio administratiboa aurkeztu.

2015eko martxoan 298.503 euroko zenbatekoan adjudikatu zen, ehuneko 6,15eko beherapenarekin, lizitazio-zenbatekotik.

2015eko uztailan, batzorde iraunkorrak kontratuaren aldaketa bat onetsi zuen –behar zen txosten teknikoaren bitartez–, zimentatzean gertatutako ezusteko batzuk tarteko (azterlan geoteknikoan detektatu gabeak ziren). Horretatik heldutako kostu-igoera 38.764 eurokoa izan zen.

Ziurtagutako guztizko gastua 346.125 eurokoa izan zen, adjudikatutakoa baino ehuneko 16 handiagoa; onetsitako kontratu-aldaketaren zenbatekoa kontuan hartuz gero, desbideratzea ehuneko hirukoa da.

Ez da obraren harrera-akta formalizatu, baina obra-amaierako dokumentazio badago, bai eta obra zuzendaritzak sinatutako obra-amaierako ziurtagiria ere.

V.5.2. LAGUNTZA KONTRATUAK

Turismo Informaziorako Zentroaren Kudeaketa

Kontratuaren helburua da Aguilaresko guneko turistarentzako arretaren kudeaketa kontratatzea. Horretarako, behar diren langile teknikariak edukiko dira –hiru pertsona–, eta gune horren mantentzearen eta garbitzearen ardura hartuko da. Zerbitzu hori 2010etik eman izan da, eta kontratu hori 2013an amaitu zen.

Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Lizitazio-iragarkian, kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko, kontuan hartzen da bakarrik kontratuaren lehenengo urtea –2014–, 101.157 euroko zenbatekoarekin. Hala eta guztiz ere, bal-

dintza-orriek aukera bat jasotzen dute hura hiru urtera luzatzeko –2017ra arte–, eta hala gertatu da egiazki; kontratuaren balio zenbatetsia 404.628 eurokoa izanen zen. Araudi indardunari jarraituz, azken zenbateko horixe da lizitazio-iragarkian agertu beharko zuena eta, zenbatekoa dela-eta, Europar Batasuneko atalasetik gorako prozedura irekia bideratu beharko zuena.

- Prezioaren balorazioari dagokionez, automatikoki baztertzen dira, baldintza-orriei jarraituz, ehuneko 10etik gorako beherapena duten eskaintzak. Baztertze automatiko hori araudiaren aurkakoa da; hala eta guztiz ere, egiazki ez zen inongo eskaintza baztertu arrazoi hori dela eta, zeren eta lau eskaintzailek ehuneko 10eko beherapena aurkeztu baitzuten, eta bosgarrenak, berriaz, ehuneko 1,14koa.

- Puntuak proposamen teknikoaren azpi-irizpideei esleitze zehatza kasuko eskaintzak zabaldu ondoren egiten da.

- 91.401 euroan adjudikatu zen, lizitazio prezioetik ehuneko 10eko beherapenarekin.

- Ez dago formalki jasota 2015ko eta 2016ko ekitaldietarako luzapenaren erabakirik; alabaina, baldintza-orriek ez dute halakorik berariaz jasotzen.

- Luzatutako ekitaldietako kontratuaren zenbatekoa ez da KPlaren arabera gaurkotu –balio negatiboak izan ditu bi ekitaldietan–, nahiz eta baldintza-orriek ezarri zenbateko hori ekitaldi bakoitzeko KPlaren arabera “igoko” dela.

Bestetik, 2014ko martxoan, batzorde iraunkorraren erabakiz, aurreko kontratua aldatu zen. Horretarako justifikazio gisa aipatzen da ezen, une hauetan, Komunitateko turismo batzordea Bardeako Turismo Plana egiten ari dela, eta, hori dela eta, gomendagarria dela gaur egun turismo gunerako enpresa adjudikazio-hartzailean lan egiten duen teknikari batek hartan laguntza ematea, turismoaren kudeaketari buruz, eremu babestuei buruz eta ingurumen-hezkuntzari buruz dauzkan ezagutzak direla eta. Horren emaitza da adjudikazio-hartzaileari kontratua zabaldu zitzaioela aipatutako teknikariak turismo batzordeari zerbitzuak ematearen bidez, hasiera batean hiru hileko eperako (2014ko apiriletik ekainera); halaber, baimena ematen zaio enpresari informazio-gunean pertsona horrek daukan lanpostuan ordezkotzeko langile bat kontratatzeko.

Langile horrek bederatzi hilabetez lan egin zuen 2014an –hasiera batean, soilik hiru hilabeterako zegoen aurreikusita–, eta 2015eko martxoan batzorde iraunkorrek erabaki zuen teknikari horren prestazio berri horren epea 2015aren amaierara arte luzatzea.

Kontratazio horrek ekarri duen gastua ez zaio aurrekontuan egozten aipatutako laguntza kontratuari (2. kapituluaren erregistratua); izan ere, 6. kapituluaren partida batean, “Turismo Planaren Proiektua” izenekoan, jasotzen da: 51.555 euro da guztizko zenbatekoa (BEZa barne); horren xehakitzea, ekitaldiz ekitaldikoa, honako taula honetan jaso dugu:

Ekitaldia	Kontratuaren epea	Zenbatekoa
2014	9 hilabete	17.274
2015	12 hilabete	31.644
2016	Hilabete	2.637

Azken batez, gure iritziz, laguntza kontratu baten aldaketaren bidez, adjudikazio-hartzaileak aipatutako kontratuan aurreikusita edo jasota ez zeuden eginkizun edo zerbitzu batzuetan jardundu.

Asken proiektuko obra zuzendaritza eta laguntza

2014ko abenduan, batzorde iraunkorrek erabaki zuen askak instalatzeko obren kontratazio-rako jarduerak hastea. Biler horretan, halaber, komentatu zen obra-zuzendaritza kontratatzeko beharra zegoela; gero, 2015eko otsaileko saioan, aipatutako batzordeak erabaki zuen kontratazio-prozesua hastea.

Hala eta guztiz ere, 2015eko uztailean arte, batzorde iraunkorrek ez zuen formalki espediente hori onetsi; orduan eman zitzaion enpresei gonbidapen-gutuna eta kontratuaren funtsezko baldintzen agiria. Honako hauek nabarmendu ditzakegu, besteak beste:

- Xedea: Askak instalatzeko proiektuko obren zuzendaritza, kontratazio-mahaiari obra horietarako laguntza teknikoa ematea eta proiektuaren eta obren segurtasunaren eta osasunaren gaineko kontrol-zerbitzua ematea.

- Aurrekontua 59.000 eurokoa da, eta kontratazioa Europar Batasunean publikizaterik egin gabeko prozedura negoziatuaren bitartez egiten da, irizpide gisa eskaintza aldekoenarena erabiliz. Negoziazioa soilik alderdi ekonomikoan zehaztu zen, eta lizitatzailer guztiei jakinarazi zitzaizkion zen zen eskaintako preziorik merkeena; gero, eskaintzen bigarren buelta bat egin zen.

2015eko uztailean, gonbidapenak bidali zitzaizkien lau enpresari, eskaintzak aurkezteko. Guztiek bidali zuten berea.

Aurkeztutako eskaintzarik onenak 29.000 euroko proposamen ekonomikoa egin zuen; horrek ehuneko 50eko beherapena dakar lizitazio-prezioaren aldean; hori dela eta, anormalki baxua dela jo daiteke. Horregatik, mahaiak beste txosten tekniko bat eskatu zuen, zehazte aldera ea prezio horrekin eman ote zitezkeen kontratuaren xede ziren zerbitzuak.

Kontratua batzorde iraunkorraren 2015eko azaroaren erabaki batez adjudikatu zitzaion 29.000 euroko eskaintza egina zuen enpresari, txosten tekniko positibo bat izan ondoren eta egiaztatu ondoren beste inongo lizitatzaileraren alegaziorik ez zegoela.

Nabarmendu behar dugu zeinen berandu hasi den laguntza teknikoaren kontratazioa, kontuan izanda bitartean kontratazio prozesua etenik zegoela obra egiteko; haren eskaintzak 2015eko otsailerako aurkeztuta zeuden.

Egindako ordainketei dagokienez, nabarmendu beharra daukagu 2016ko azaroan kontratatutako guztizko lansarien likidazioa aurkeztu zela; askak instalatzeko obra, berriz, 2017ko martxoan amaitu zen egiazki.

Obra-zuzendaritzako kontratu horren gastuez gainera, haren adjudikazio-hartzaileak beste zerbitzu batzuk fakturatu zituen, kontratatutako obraren proiektua idazteko lansariei, hain zuzen ere 2016ko ekainean egiteko zeudenei –5.950 euro– eta fitxa partzelarioen exekuzioari eta bertan egindako zuinketari –1.944 euro– zegozkienak; fakturazio horien arrazoia dira, funtsean, obren adjudikazio-hartzailearen legezko egoerak ekarritako gorabeherak. Ez dago formalki jasota kontratuaren aldaketarik egin izana edo beste lan batzuk berariaz enkargatu izana.

Guztira, fakturatutako gastuek 37.114 euro egiten dute. Horrek adjudikazio-zenbatekoaren ehuneko 28 gehiago egiten du. Gaindikin horren justifikazioa aurreko paragrafoan aipatu ditugun lan gehigarriak dira.

Turismo Jasangarriaren Europako Gutunerako Hautagaitzaren Dosiererako kontratua

Kontratuaren xedea zen dossier bat egitea, EUROPARK Europako organismoari aurkezteko. Horren helburua zen Turismo Jasangarriaren zigilua lotzea eta ekintza plan bat diseinatzea, Errege Bardearen Turismo Planean zehaztuko zena.

Europako deialdia urtero egiten da, eta eskatzen du planak urte bakoitzeko abenduan aurkezteak. Hori dela eta, kontratazioa 2016ko martxoan hasi zen, eta azterlana egiteko epea irailaren 15ean amaitu zen. Helburua zen dosierra urtearen amaiera baino lehen aurkeztu ahal izatea Europako agintariei.

Lizitazio-aurrekontua 45.000 eurokoa zen. Baldintza-orrien arabera eskaintza anormalki baxutzat jotzen da ehuneko 15etik gorako beherapena dakarrena.

Prozedura irekirako bederatzi proposamen aurkeztu ziren. Eskaintzetatik lauk ehuneko 15eko beherapena gainditzen zuten; hori dela eta, kontrataziotik kanpo utzi ziren, alegazioen izapidea iragan ondoren. Prozesua eta gero, 2016ko maiatzean, batzorde iraunkorrak erabaki zuen adjudikazioa egitea lehiaketan hobekien baloratu zen enpresari, 38.250 euroko prezioan (ehuneko 15eko beherapena).

Baztertu ziren enpresetatik bik kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkeztu zuten bazterketa horren aurka; alegazio horien oinarria zen, funtsean, ez zela aztertu ea anormalki baxuak ziren proposamenak egiazki burutu zitezkeen. Enpresa horiek eskaintako beherapenak ehuneko 18,52koa eta ehuneko 15,56koa izan ziren, hurrenez hurren.

Kontratu Publikoen Auzitegiaren 2016ko ekaineko erabaki batez, partzialki baietsi ziren bi erreklamazio horiek, eta enpresen baztertzeari deuseztatu zen; halaber, agindu zen prozedura eskaintzak onartzeari buruz kontratazio-mahaiak hartutako erabakiaren aurreko txosten teknikoa egiteko unera ekartzea.

2016ko uztailan, batzorde iraunkorrak erabaki zuen enpresa espezializatu baten zerbitzuak kontratatzea, txosten bat egin zezan lehiaketan eskaintza anormalki baxuak egiteagatik baztertu ziren enpresen proposamen ekonomikoei buruz, jakite aldera haiek onartu eta baloratu behar diren, kasua bada kontratazio-mahaiak dagokion erabakia hartzeko.

2016ko irailean, aipatutako enpresak txosten bat eman zuen, zeinean eskaintza ekonomikoak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, honako hau ondorioztatzen baitu:

“nabarmendu beharra dago kontratuaren gehieneko aurrekontuaren balioaren ehuneko 15etik gorako beherapena dakarren eskaintza ekonomikoa aurkezteagatik lizitaziotik baztertutako bost enpresen eskaintza ekonomikoak merkatuaren tartearen barruan daudela eta gara daitezkeela araudietan ezarritako laneko betebeharrak eta betebeharrak fiskalak betetz”.

Kontratazio-mahaiak, 2016ko irailean, proposamen guztiak onartu ondoren, ikusi zuen hobe-kien baloratutako enpresa zela hain zuzen ere errekurtsioa aurkeztu zutenetako bat. Hala eta guztiz ere, mahaiak nabarmendu zuen ezen, alde batetik, aipatzen den datak ezinezko egiten duela deialdian ezarritako epe-muga betetzea (2016ko irailaren erdialdea); bestetik, gainerako lizitatuak geratu diren segurtasun juridikorik ezeko egoera, eskaintzak baldintza-orrien arabera ezarritako baldintzetan egin zituztelako eta baldintza horiek, Auzitegiaren iritziz, nahasgarriak zirelako.

2016ko irailaren 22an, batzorde iraunkorrak erabaki zuen lehiaketa eman gabe uztea, interes publikoko arrazoiak tarteko; hona hemen horretarako emandako arrazoiak:

- Zerbitzua baldintza-orrietan ezarritako epean eta datetan (2016ko irailaren 15a) ezin betetzea berez ere interes publikokotzat jo daitekeen inguruabar bat da, zeinak berekin baitakar lehiaketa adjudikazio-hartzaileak gabe utzi behar izatea.
- Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa hautsi izanari buruzko inguruabar juridikoak eta muga ekonomikoa bazterketarako klausula gisa ulertu zuten lizitatuak ez dakarren bazterketa; izan ere, litekeena da mugatik beherako eskaintza ekonomikorik ez egitea arrazoi horrengatik.

Erabaki hori lizitatuak aurkeztu ondoren, ez da errekurtsorik aurkeztu ezarritako epeetan.

Gaur egun beste lehiaketa baterako oinarriak prestatzen ari dira, Europako deialdi berrira aurkezteko.

V.5.3. HORNIDURA KONTRATUAK

Bi hornidura-kontratuak aztertuta –motonibelagailu bat eta atoi bat erostea–, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Jasota dago betebeharra badagoela.
- Prozedura negoziatuaren bitartez adjudikatutakoan –atoiarena–, ikusten da egiazko negoziazio bat egon zela aurkeztu ziren lizitatuak.
- Ordaindutako zenbatekoa bat dator adjudikazioaren prezioarekin.

Akats formal gisa, honako hauek aipatu behar ditugu:

- Motonibelagailuaren adjudikazioan, eskaintzak aurkezteko epea 14 egunekoa da, laburragoa araudiak ezartzen duen 18 eguneko gutxieneko epea baino.
- Ez dira kasuko kontratuak egiten.
- Ez da hornitutako ondasunak egiazki jaso izanari buruzko akta egiten.

• Atoiaren kasuan, ez dago jasota baldintza-orrietan ezarritako behin betiko fidantza eman denik; motonibelagailuaren kasuan, jaso eta urtebeteko epean itzultzen da, nahiz eta mantentze-aldia bi urtekoa zen.

V.5.4. IKASKETAK ETA IKERKETA ZIENTIFIKOA EGITEKO KONTRATUAK

Errege Bardearen babes berezia, parke naturala eta biosferaren erreserba baita, berekin dakar lurraldeari, landarediari, florari eta faunari buruzko ikerketa zientifikoa sustatu behar izatea, haren balio naturalak zaindu eta babeste aldera. Deklarazio horiek beraiekin dakartzaten betekizunetako bat da hori.

Hartara, 2010etik 2016ra, Komunitateak guztira 1,4 milioi inbertitu ditu bisa horretako azterlanetan, honako urteko xehakatzearen arabera:

Ekitaldia	Azterlan eta ikerketetan gastatutako zenbatekoa
2010	158.787
2011	262.351
2012	381.637
2013	118.050
2014	112.596
2015	240.006
2016	130.650
Guztira	1.404.077

Gastu horiek, 2015era arte, 6. kapituluko partida batean erregistratzen ziren; 2016an, ordea, irizpidea aldatu zen, aurrekontu-egitura berri baten arabera, eta 2. kapituluan erregistratu ziren.

Gastuen guztizkoa dagokie guztira 70 hirugarreni egindako enkarguei; horien artean daude bai lan puntualak bai urte anitzeko izaera duten beste batzuk ere. Pertsona fisikoei zein pertsona juridiko publiko edo/eta pribatuei egindako enkarguak badaude. Guztira, 21 hirugarrenek gastuaren ehuneko 97 justifikatu dute.

Aztertutako aldian guztizko gastuaren ehuneko 62 biltzen duten lau entitateak honako hauek dira:

Entitatea	Azterlan eta ikerketetan gastatutako zenbatekoa
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	290.159
Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC)	277.372
Gestión Ambiental de Navarra, SA	177.521
Euskal Herriko Unibertsitatea	125.547

Lan horien finantzaketari dagokionez, aurki ditzakegu bai Komunitateak osoki finantzatutako azterlanak, bai beste entitate publiko batzuekin batera finantzatutakoak, bai eta Komunitateak laguntza logistikoa baizik jartzen ez duen lanak ere. Halaber, esan behar dugu jarduketa zehatz batzuk egin direla adituek beraiek eskatuta, Komunitateak haiek egitea interesekotzat jo ondoren.

Azterlanen xedeak askotarikoak dira; esate baterako, honako hauei buruzko azterlan eta ikerketak aurki ditzakegu: erbi iberikoa, ganga iberikoa, dortokak, barraskilo autoktonoak, hegazti esteparioak, harkaitzetako harrapariak, Nauman belatza sartzea, hainbat hegaztitarako ekipamendua eta jarraipena –bereziki, sai arrea–, uretan nitrato ekarpen txikiagoak egotea, nekazaritza-lanen egutegiak hegaztiengan duen eragina, Casteltierra finkatzeko entseguak, geologia eta paleontologia, arkeologia, habitata leheneratzea eta abar. Ikerketaren xede diren gaiak hautatzen parte-hartze garrantzitsua dute Komunitateko ingurumen-zerbitzuek.

Lan horien beharrari edo interesari dagokionez, parke naturala eta biosferaren erreserba izatetik heldutako habitata zaintzeko jada aipatutako betekizunak justifikatzen ditu. Ildo horretan, azterlan eta ikerketa zientifiko garrantzitsuenak 2009tik aurrera egin dira, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioarekin 2009tik sinatutako biosferaren erreserben kudeatzen laguntzeko lankidetzak hitzarmenen esparruan. Hitzarmen horiek heldu dira aipatutako ministerioak egindako deialdietatik, eta haietan garatu beharreko jarduketak eta haien aurrekontua proposatzen dira.

Hiru izan dira sinatutako hitzarmenak, eta aipatutako ministerioak gastuaren bi heren finantzatu ditu; gainerakoa Komunitateak jarri du:

Hitzarmena	Indarraldia	Jarduketaren guztizko zenbatekoa
2009	2011ko martxora arte	2.250.000
2010	2012ko abendura arte	1.625.024
2011	2012ko abendura arte	1.625.463

Halaber, Nafarroako Gobernuaren finantzaketa ere jaso da beste hainbat lanetarako.

Entitate edo pertsona fisikoaren hautaketari dagokionez, lan garrantzitsuenak erakunde publikoekin egindako ikerketa kontratuen bidez egiten dira, erakunde horietako ikerlariak gai horiei buruzko lanak egin dituztenean edo haietan adituak direnean; beste batzuetan, zuzenean kontratu dira, ikerketaren berezitasuna dela eta, arloan adituak diren profesionalekin.

Lanen emaitzak eta, horretaz gainera, oinarritzko ikerketatik bertatik heldutako emaitzak, oinarri gisa erabili dira materialaren edukiak zehazteko. Komunitatearen koaderno didaktikoetan jaso dira, ikasle-taldeekin bisitekin erabiltzeko, ingurumenaren arloko hezkuntza sustatzeko, eta argitaratutako zabalkundeko materialetan gauzatu dira (turismo informazioko liburuxkak, parke naturalari buruzko argitalpenak eta abar), bai eta Aguilaresko informazio-guneko erakusketa eremurako eduki gisa landu dira.

Halaber, erabiltzen ari dira parke naturalaren erabilerari eta kudeaketari buruzko araudia zehazteko; esate baterako, habiak egiteko garaiak eta tokiak zehazteak balio izan du aldi horietan toki batzuetatik iragatea debekatzeko. Halaber, aintzat hartzen ari dira egiten ari den Turismo Planaren zehaztapenari begira; izan ere, turismo jasangarriaren kalifikazioa izan dezan lortu nahi da.

Lanen emaitzak Biosferaren Erreserben Jardunaldi Teknikoetan erakusten dituzte parkean ikerketa-lanak garatu dituzten lantaldeek.

Gainera, egindako jarduketak eta haien emaitzak Parke Naturalaren Kontseilu Aholkuemailearen bileretarako prestatu diren jarduketa-oroitidazkietan erabili dira hainbat urtez.

Kontratu horiek aztertzeko, bost entitateri enkargatutako azterlanen laginak hartu ditugu. 0,7 milioi euroko guztizko gastua dute. Azterketaren emaitzak onak dira: gastu guztiak baimenduta, justifikatuta eta kontabilizatuta daude, eta ikerketaren emaitzak jasotzen dituen txosten/azterlan bat badago.

Hala ere, gomendatzen dugu:

- *Ahal den zehaztasun guztiarekin xehakatzeari egin beharreko lanaren aurrekontuaren guztizko kostua osatzen duten partidak, eta gastuaren justifikazioak ere zehaztasun hori izan dezala.*
- *Urte anitzeko proiektuetan, komenigarria izanen litzateke lanak gainbegiratzeari arduratzen diren teknikariek txosten bat aurkeztea, ekitaldi bakoitzaren amaieran, egindako lanen betetze-mailari buruz.*

V.5.5. AMAIERAKO ONDORIOAK ETA KONTRATAZIO PUBLIKOARI BURUZKO GOMENDIO OROKORRAK

Aurreko iruzkinak kontuan hartuta, gure ondorioa da Bardeako Komunitateak kontratazio publikoa dela-eta egin duen kudeaketa, salbuespen puntual batzuekin, arlo horretako araudiaren arabera izan dela.

Hartara, nabarmendu behar dugu aztertutako obrako, horniduretako eta laguntzako kontratu ia guztiak prozedura irekiaren bidez izapidetu direla; horrek errazago egin du eskaintzaileek lehia egin ahal izatea eta eskaintza aurkeztea lizitazio-preziotik beherapen garrantzitsuak eginez. Halaber, ez da desbideratze nabarmenik ikusi adjudikazio-prezioaren eta lizitazio-prezioaren artean.

Hala eta guztiz ere, ikusi dugu gabezia batzuk badaudela aztertutako prozesu batzuetan; hori dela eta, honako gomendio orokor hauek egiten ditugu:

- *Komenigarria izanen litzateke adjudikatutako kontratuen eta indarrean dauden kontratuen zerrenda bat edukitzea, gutxienez ere ekitaldi bakoitzaren amaieran.*
- *Kontratazio atarian argitaratzea kasuko hautapen-prozesuetako adjudikazioak.*
- *Kontratuen aldaketak formalki onetsi behar ditu kontratazio-organoak, exekuzio materialari ekin baino lehen. Halaber, berriz doitu behar dira, kasua bada, jarritako fidantza edo bermeak.*
- *Baldintza-orriak argitasunez eta zehaztasunez idatzi behar dira, balizko eskaintzaileen interpretazioak saihesteko, horrek gero hautapen-prozesuak zailtzen dituelako. Halaber, baldintza-orri horiek xehetasun guztiekin jaso behar dituzte azpi-irizpide bakoitzari dagozkion puntuak.*
- *Eskaintzaileak eskaintza ekonomiko anormalki baxua aurkezteagatik baztertzeke, txosten teknikoaren bidez justifikatu beharko da kontratua ezin dela bete aurkeztutako prezioarekin.*
- *Hautapen-prozesuetan kontratuaren zenbatetsitako balioa jaso behar da, kontuan hartuta haren guztizko zenbatekoa, lehen alditik heldu dena, nahiz haren balizko luzapenetatik heldu dena.*
- *Adjudikazio-hartzaileari eskatzea, kontratua sinatu aurretik, kasuan kasuko baldintza-orrietan jasotako dokumentazio guztia aurkez dezala.*

Halaber, nabarmendu behar dugu aztertu ditugun kontratuetatik garrantzitsuenak izapidetzerakoan, ikusi dela gorabehera eta atzerapen batzuk gertatu direla haien plangintzan, eta litekeena dela haiek kanpoko faktoreek eragin izana, baina beste batzuetan arrazoia izan dela Komunitatean kudeaketarako giza baliabide edo bitarteko eskasak egotea. Hau da, parke naturalaren eta biosferaren erreserbaren izaerak eskatzen du Komunitateak arestian kudeatzen zituenez beste egiteko eta jarduera batzuk egin behar izatea; egoera berri horrek, ordea, ez du berekin ekarri langileen kopurua handitzea; izan ere, kopuru hori ia bera izan da 2000tik. Horri dagokionez, uste dugu egungo lege-esparruaren barruan, aztertu beharko litzatekeela Komunitatearen egungo plantilla arrazoizkoa ote den, hari esleitutako jarduerak ikusita.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko urriaren 23an.

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINA. ERREGE BARDEAKO KOMUNITATEAREN AURREKONTU-BETEARAZTEAREN BILAKAERA ETA MAGNITUDE NAGUSIAK (2010ETIK 2016RA)

Eranskin honetan, informazioa emate aldera, Komunitatearen aurrekontuetako gastuen eta diru-sarreraren bilakaera erakusten dugu, 2010etik 2016ra bitarteko aldirako, bai eta magnitude aipagarrienak eta intereseko beste datu batzuk ere, aztertutako gastua bere testuinguruan jartze aldera.

Izena	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Aurrekontuko diru-sarrerak	8.975.450	11.219.267	10.136.357	12.208.420	9.710.135	10.174.772	9.553.440
Aurrekontuetako gastuak	9.485.302	9.347.164	9.906.427	9.097.829	11.155.178	8.819.033	9.033.786
Aurrekontu-emaitza doitua	-65.331	1.750.156	2.317.435	3.110.591	640.501	1.680.671	519.654
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	8.194.348	9.660.574	11.210.459	14.483.976	13.762.979	15.416.100	16.301.714
Zorduntzea	16.919.300	15.661.072	14.387.508	13.072.213	9.736.190	8.595.360	7.463.192

Ikus daitekeen bezala, 2016ko amaieran, Komunitatearen egoera saneatua zen, eta diruzaintzako gerakin aipagarria zuen gastu orokorretarako, 16,3 milioikoa; zorpetzea, berriz, 7,46 milioikoa zuen, alegia, diru-sarrera arrunten ehuneko 78koa. Zorpetze hori 2008an itundu zen, eta eguzki-baratzeak finantzatzeko aplikatu zen. 2010etik 2016ra bitarteko aldian, ez da zorpetze gehiagorik hartu.

Hurrengo taulan erakusten ditugu, batez besteko portzentajea emanda, Komunitatearen finantzaketa eta gastua, 2010etik 2016ra bitarteko aldian.

Gastuaren izaera	Batez besteko ehunekoa 2010-2016	Finantzabidea	Batez besteko ehunekoa 2010-2016
Langileak	4	Tributu bidezko diru-sarrerak	4
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	10	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	4
Transferentzien bidezko gastuak	49	Ondare bidezko diru-sarrerak eta aprobetxamendua	92
Inbertsio errealak	14	Zorduntzea	0
Finantza-zama	23		
	100		100

Ikus daitekeen bezala, finantzaketa-iturriak batez ere ondarearen kudeaketatik heldu dira (tiro poligonoa eta energia elektrikoa, funtsean). Komunitateak ez du baliabiderik jasotzen Nafarroako toki entitateen transferentzien funtsetik, zeren eta ez baita haren banaketan sartzen.

Gastuei dagokienez, langile-gastuek ehuneko lau eskasa egiten dute; kapitulu garrantzitsuenak, berriz, transferentzien bidezko gastuek eragindakoa da, funtsean entitate partzuerrei bideratutakoengatik.

Langileei dagokienez, Komunitateko plantilla organikoak biltzen duen langileen zerrenda zazpi pertsonakoa da. Zenbateko hori ez da aldatu gutxienez ere 2010etik 2016an beteta zeuden lanpostuak sei ziren, zeren eta 2015ean landazain bat erretiratu baitzen. Hona horien taula:

2016ko langileak	Kopurua	Maila	Administrazio egoera
Funtzionarioa, idazkaria	1	A	Jardunean
Lan-kontratupeko langile finkoa, biologoa	1	A	Jardunean
Lan-kontratupeko langile finkoa, administrari-ofiziala	1	C	Jardunean
Lan-kontratupeko langile finkoak, landazainak	2	D	1 jardunean eta 1 hutsik
Lan-kontratupeko langile finkoa, txofer palista	1	D	Jardunean
Lan-kontratupeko langile finkoa, garbiketako peoia	1	E	Jardunean
Guztira	7		6 (jardunean)

Langile horietaz gainera, landazainen aldi baterako bi lanpostu daude eta zerbitzu anitzetako sei langile, praktiketako behin-behineko langileentzat eta lanaldi partzialeko langileentzat.

Daukaten garrantzi ekonomikoa dela eta, hurrengo taulan erakusten ditugu Komunitateak lortutako diru-sarrerak, zeinak heldu baitira tiro-poligonoaren errentamendutik. Halaber, entitate partzuerren arteko banaketa ageri da.

Izena	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Tiro-poligonoaren errentamendutik heldu diren diru-sarrerak	7.105.000	7.374.990	7.500.000	7.635.283	7.665.824	7.619.829	7.536.011
Entitate partzuerrentzako transferentzien gastua	4.290.000	4.290.000	4.290.000	4.290.000	4.290.000	4.290.000	4.290.000

Tiro-poligonoaren errentamendutik heldu diren diru-sarrerak Defentsa Ministerioarekin 2008ko abenduan sinatutako kontratutik datoz. 20 urteko indarraldia du kontratu horrek. 2019tik aurrera, urteko kanona egungo zazpi milioikoa izatetik 14 milioikoa izatera pasako da (zenbatekoak kasuko KPlaren arabera gaurkotzen dira). Kontratuaren guztizko zenbatekoa 210 milioikoa da, gehi urteko KPlaren arabera gaurkotzea.

Komunitateak jasotakoaren % 55 inguru entitate partzuerren artean banatzen da.

Komunitatearentzako diru-sarreraren beste iturria eguzki-baratzearen ustiatzeak sortutako energia elektrikoaren salmentatik dator. Hurrengo taulan erakusten ditugu urtero, aztertutako aldian, lortu diren aurrekontuko diru-sarrerak:

Izena	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Energia elektrikoaren saltzeak sortutako diru-sarrerak	0	2.013.646	1.668.564	3.315.076	1.324.384	1.884.052	1.489.693

Diru-sarrera horiek, oro har, nahikoak dira instalazio horietarako itundutako zorpetzearen finantza-zamari aurre egiteko.